

Kontzeju

www.oñati.eus



Berba Oñati



@BerbaOñati



koletina



Oñati Irratib

DELIC

Oñatiko Udal aldizkaria | 2017ko Maiatza | 272. zenbakia




LASTERBIDEAN

Euskal errepresalietuei elkartasuna adierazteko nazio lasterketa Oñatin ospatuko da ekainaren 4an

'UR UHINAK' PARKEA

Maiatzean hasiko dira Larrañako jolas parke berria eratzeko lanak



Ustakaberik ez bada, aurtengo udan Larrañako parkean egokituko den ur zorrotaden gunean freskatzeko aukera izango dugu. Udalaren eskariz, *Lur Paisajistak* enpresak idatzitako proiektuaren arabera, hiru hilabeteko epea beharko da 'Ur uhinak' parkea eratzeko eta, beraz, abuzturako behintzat, ur jolasen gunea prest egotea espero dute udal arduradunek.

Udalak aurrean gauzatu duen inbertsiorik inportanteenetakoa da. Guztira, hamar enpresa aurkeztu ziren udalak egindako enkante-deialdira, eta proposamenak baloratu ondoren, Irungo *Urbycolan* enpresari esleitu zaizkio lanak 323.648 eurotan (BEZ kanpo).

San Lorentzo eta Ugarkalde banatzen dituen berdegunean egokituko da 'Ur uhinak' izeneko parkea. Ezkerreko planoan ikusten den moduan, bi zonalde desberdin sortuko dira bertan: ur zorrotaden gunea (Ugarkalde aldera) batetik, eta pertsona helduek ariketa fisikoa egiteko gunea (San Lorentzo aldera) bestetik.

Gaur egun berdegune horretan dgoen zuhaitz helduen masa bere horretan mantenduko da. Horrek, jakina, interbentzio eremua mugatzen du eta, beraz, azalera erabilgarria handitzeko asmoz, Ugarkaldera doan errepidearen sekzioa estutu egingo da: bidearen alde bietan dauden aparkaleku ilarak kendu egingo dira, eta baita espaloietako bat ere, parkearen azalera handituz.

UR JOLASEN GUNEA

Ondoko planoak erakusten duen moduan, parkearen ekialdean (Ugarkalde aldera) ur zorrotaden gunea egokituko da. Hiru ur tanta irudikatzen dituzten hiru gune izango dira, ur zorrotada eredu desberdinekin bakoitzean.

Lurzorutik irteten diren ur zorrotadak izango dira, batez ere. Ur tantaren eta ur uhinen ideia indartzeko, asfalto gainean zirkulu txuri kontzentrikoak margotuko dira.

Ur jolasen gune hauen ingurua asfaltatuta egongo da, eta jolaserako nahiz etzanda egoteko balioko du. Gainera, berdegunean eserlekuak eta mahaiak ipiniko dituzte, eta bertako zuhaitzen gerizpean 'piknik' egiteko aukerako gunea izango da.

ARIKETA FISIKOA EGITEKO GUNEA

Parkearen beste aldea (San Lorentzo aldera) zelai moduan antolatuko da, irekia, zuhaitz gabea. Zelai inguratzen eta mugatzen asfaltozko oinezkoen bidea eogngo da, eta bide honetako gune zabalenean kirola eta ariketa fisikoa egiteko tresnak jarriko dituzte.

Bestalde, Ugarkaldera doan errepidearekiko barrera funtzioa

Ustekaberik
ez bada,
abuzturako
prest egongo da
ur parkea
ETE0 zahareko
aurrealdeko
berdegunean



Larrañaiko berdegunean (Eltzia aurrean) egokituko da 'Ur uhinak' parkea



Ur zorrotada gehienak lurzorutik irtengo dira, baina aparaturen bat jartzea ere ez da bazterten

gingo duten zuhaixkak eta landare bizkorak landatuko dira, uda garaian urdin kolorez loratuko direnak eta loraldi oparoa eskainiko dutenak.

Gainera, parkea eta Lazarraga kalea bereziten dituen orman etendura bat egin eta eskailera batzuk egokitzea proposatzen

Ugarkaldera doan bidearen sekzioa estutu egingo da; alde bietako aparkalekuak eta espaloietako bat kenduko dira

da, Lazarraga kaletik zuzenean parkera sartzeko aukera sortuz.

Larrañaiko 'Ur uhinak' parkea Olanar Paisaia proiektuaren baitan egingo den lehena ktuazioa da. Larrañaikoz gain, Olakua eta San Martingo berdeguneak ere biziberritzeko asmoa du udalak.

ESKAINITZA **90€** **BEREZIA**

Guztia barne

EZKONTZETAN Etxea-Aundi

2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



Desfibrilagailua eskura

Kiroldegiko desfibrilagailua harreraren jarri dute, eskuragarri egoteko

Desfibrilagailuak eskura edukitzea oso garrantzitsua da. Bihotza gelditu zaion pertsonaren bizitza salba dezakete, azkar jokatzuz gero. Aurreneko 7-10 minutuetan artatuz gero, bizi-itxaropen indizea oso altua da, baina hortik aurrera eraginkortasuna galtzen da.

Hain zuzen ere, horregatik erabaki du kiroldegiko zuzendaritzak desfibrilagailua harreraren jartzea, goiko argazkian ikusten den moduan. Orain arte, harrerako bulego barruan zegoen, giltzapean, eta orain berriz, kanpora atera dute, trabak kendu eta edonoren eskura egon dadin erabilgarri.

Zorionez, gaur egun gero eta leku gehiagotan dauden desfibrilagailuak. Eusko Jaurlaritzak orain dela bi urte onartu zuen gailu hauen ezarpena eta erabilerara aratuzten duen dekretua.



Hala, gaur egun, derrigorrezkoa da desfibrilagailua egotea 700 pertsonatik gora hartzen dituzten jolas edo kirol ikuskizunak antolatzen dituzten guneetan, 2.000 erabiltzailetik gora dituzten dituzten merkatal gune, aisialdiko lokal, hezkuntza zentro eta bestelako leku publikoetan.

Gainera, gizartea, oro har,

oso kontzientziatuta dago gai honekin, eta gaur egun ez da arraroa desfibrilagailuak aurkitzea tabernatan, lantegietan bizilagunen komunitateetan...

DESFIBRILAGAILUEN APPa

Ildo horretan oso interesgarria da Osakidetzak garatu duen 'Ayuda a la parada cardíaca' izeneko aplikazioa (Google Play zein Apple Store-n eskura daiteke dohainik). Telefono mugikor bidez, gu gauden tokitik gertuen dauden desfibrilagailuak non dauden esaten digu.

Gailuak lokalizatzeaz gain, bihotz-biriken gelditze baten aurrean nola jokatu behar dugun, erranimazio ariketak nola egin, eta desfibrilagailua bera nola erabili behar dugun azaltzen du APPak, eta 112 zerbitzuara zuzenean deitzeko aukera ematen du.

FORMAZIOA IKASLEEI

Osasun zentroak herriko Batxilergoko ikasleei eskaintzen die urtero bihotz-biriken bizkortzeari buruzko oinarrizko formazio saioa



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSOANAK, LENDAK, LUB FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






DI SEINATZAILA ETA MONTATZAILA
SERRALDEAK, KAMARRAK eta ASKEZ GELUGA
ORAKUA 12 O 4 esk. - ZUCBO ERABI - GIBUZKOGA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Oñatiko desfibrilagailuen mapa

Herrian dauden desfibrilagailuen mapa (hauen kokapena eta zein ordutegitan dauden erabilgarri) osatzeari ekin dio udalak, gizarte zerbitzuen eta udaltzaingoaren bitartez. Gaur egun, kiroldegikoaz gain, Azkoagainen, San Martin egoitzan, Eguneko Zentroan eta zenbait enpresatan (Garay, Fagor, Eroski, Ulmako negozio ezberdinetan) daude desfibrilagailuak Oñatin, jakin ahal izan dugunez.

Oñatiko udaltzaingoak ere laister (ekainerako) izango du berea. Kotxean eramateko modukoa izango da desfibrilagailua, baina, horrez gain, udaltzaingoa bertan, eraikinaren kanpoaldean, beste aparatu finko bat jartzeko aukera aztertzen ari dira, eguneko 24 orduetan erabilgarri egon dadin herritarren eskura.

FORMAZIOAREN GARRANTZIA

Garrantzitsua da desfibrilagailuak egotea leku publikoetan, baina hori bezain garrantzitsua da jendeak gailu horiek erabiltzen jakitea. Zorionez, azken urte hauetan asko erraztu da aparatu hauen erabilera. Erdi-automatikoak izaten dira, eta gailuak ematen ditu instrukzio edo jarraibideak, eta beharrezkoa den kasuan bakarrik egiten du deskarga. Beraz, edozein pertsonak erabil dezake desfibrilagailua, osasun arloko formaziorik ez izan arren.

Hala ere, komenigarria da bihotz-biriken bizkortzea eta desfibrilagailuaren erabilerari buruzko oinarrizko ezagutza izatea, eta zenbat eta jende

gehiagok eduki, hobe. Nahikoa izaten da bi orduko tailer bat jasotzea.

Zorionez, gero eta ikastaro eta tailer gehiago antolatzen dira gure inguruan. Adibidez, osasun zentroak herriko hiru ikastetxeetako Batxilergoko ikasleei eskaintzen die formazio saio urtero. Bestalde, Zubikoa kiroldegiak ere antolatzen ditu kirol arloan diharduten langile eta eragileei zuzendutako ikastaroak, eta udaleko Prebentzio eta Hezkuntza sailek ere antolatu ohi dituzte lehen sorospeneko formazio saioak Guraso Eskolaren bitartez, Gurutze Gorriak edo DYAk antolatzen dituztenak ahaztu barik.



MARINA MADARIAGA ETA ANDREA SANZ,
Gurutze Goiriko formazio arduradunak

“Erabiltzerrek dira desfibrilagailuak”

Debagoieneko Gurutze Gorriak hiruzpalau ikastaro antolatzen ditu urtean desfibrilagailu semiautomatikoen erabiltzaile titulua eskuratzeko. Zortzi orduko trebakuntza saioa izaten da, eta hurrengo asteburu honetan bertan (maiatzak 5-6) izango da, Oñatin (informazioa: 678401586). “Ur sorospidetzan aritzeko titulua behar duen jendeari zuzendutako ikastaroak dira” azaldu digu Marina Madariagak.

Baina titulua ateratzeko ikastaroez gain, bi orduko formazio saioak ere ematen ditu Gurutze Gorriak ikastetxe, lantegi, erakunde eta kolekribo ezberdinei. “Gero eta interes handiagoa dago gizartean gai honen inguruan, eta poztekoa da. Denok izan behar genuke oinarrizko ezagutza bihotz-biriketako bizkortze ariketen inguruan” uste du Andrea Sanzek.

Gaur egun oso erabiltzerrek omen dira desfibrilagailuak. Aparatuak berak esaten dizu uneoro nola jokatu behar den. “Gainera, desfibrilagailua erabiltzen dugunean, beti 112 zerbitzura deitu behar dugu, eta hango medikuak ematen dizkigun jarraibideak ere oso lagungarriak dira” dio Madariagak.

Oso eraginkorrak omen dira desfibrilagailuak, baina denboraz ibiltzea da gakoa. Bihotz-biriken gelditze kasuetan lehenbailehen hasi behar da bizkortze edo erreanimazio masajea egiten.

fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Romun eta sukaldeetako erreformak
- > Ruzulejoen salmenta
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

etxebizitza osatzeko behar duzun guztia

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheha • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



Nolakoa da pertsona elbarrituen eguneroko bizitza?



» Sentsibilizazio saioak egin ditu TRAUTI elkarteak herriko ikastetxeetan.

» Maiatzaren 6an ospatuko da Trauti Eguna herriko plazan.

Urtero bezala, sentsibilizazio saioak egin ditu Trauti elkarteak herriko hiru ikastetxeetako 5. mailako ikasleekin, pertsona elbarrituek eguneroko bizitzan dituzten zailtasunak azaldu eta neska-mutikoengan enpatia areagotzeko asmoz.

Saio horietako batean egon ginen, eta oso interesgarria izan zen. Ikasleek arreta handiz

jarraitu zituzten Trautikoen azalpenak, eta sentsibilitate maila handia erakutsi zuten.

Trautiko kideek (Rafael Kortabarria, Mikel Etxezarreta, Isabel Rebollo, Lukene Igartua eta Urdin Mendiola) Oñatiko kaleetan aurkitzen dituzten zailtasunak azaldu zituzten irudiz lagunduta. “Kontuan hartu behar da, eskailera maila

“**Mugikortasun urriaren betarurekoak jantzita begiratzen hasi behar dugu**

batzuk igotzea Everestera joatea bezalakoa dela gurpil-aulkidun batentzat. Beraz, denok jarri behar dugu geure aldetik, elbarrituen bizitzetan ahalik eta Everest gutxien egon dadin” esan zuten Trautiko kideek.

OÑATI ONDO EGOKITUTA
Irisgarritasun mailan Oñati ondo egokituta dagoela esan



REFORMAS · INTERIORISMO

Euskadi Etorbidea 3 • Tel.: 943 902 009
orekainteriorismo@yahoo.com

- BARNE DISEINUA
- ALTZARIAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
- ERREFORMAK



zuten Trautikoeak. “Udala sentsibilizatuta dago, eta lan polita egiten ari gara elkarrekin oztopo arkitektoak kendu eta proiektu berriak daudenean, irisgarritasun legea betetzen dela bermatzeko”.

Baina oraindik badago zer hobetua, Trautiko kideen ustez. “Espaloi asko estuegiak dira, eta, zenbait lekutan, arrapalak ez daude araudira egokituta —malda edo pendiz handiegia dute—, eta itsuak orientatzeko erreferentziak falta dira leku askotan... batzuk aipatzearren”.

JOKABIDE OKERRAK

Herritarren jokabide okerren gainean ere ohartarazi nahi izan zuten Trautikoeak. “Kotxeak zebra-bideetan edo espalaira igota uzten dira, gurpil-aulkian edo ume-kotxearekin doazenak errepidera irten araziz...”. Ildo horretan, elbarrituendako aparkalekuak errespetatzearen garrantzia azpimarratu zuten Trautiko kideek. “Jende askok elbarrituentzako aparkalekuetan



uzten du kotxea, ‘momentuxo’ baterako, baina gerta daiteke momentu horretan elbarritu batek behar izatea aparkaleku hori, eta okupatuta baldin badago, etxera bueltatu behar izatea, lekurik ez daukalako. Guk ezin ditugu aparkaleku arruntak erabili, lekua behar dugulako gurpil-aulkia kotxetik ateratzeko. Beraz, guretako oso garrantzitsua da aparkaleku horiek errespetatzea”.

Kalean, oinezkoen ibilbidean, eta taberna inguruetan jartzen diren mahai eta aulkiez ere ohartarazi zuten, “ikusmen arazoak dituzten pertsonentzako arriskutsuak dira, eta,

Itsuek irakurtzeko eta idazteko erabiltzen duten Braille sistema ezagutu eta ariketa bat egiteko aukera izan zuten ikasleek

“

Guretzako oso inportantea da elbarrituen aparkalekuak errespetatzea

gainera, erreferentziarik gabe geratzen dira”.

Saioaren amaieran, beraien jakinmina asetzeko aukera izan zuten ikasleek. “Nola moldatzen diren kotxea gidatzeko, edo dutxatzeko? Teknologia berriak erabiltzen ote dituzten? Inoiz bazterutak sentitu ote diren? Nola egin dioten aurre gaixotasunari?...”.

TRAUTI EGUNA

Orain dela bost urte eratu zen Trauti-Hesirik Gabe elkarte Oñatin, oztopo arkitektonikorik gabeko herri baten alde lan egiteko asmoz. Mugikortasun urria duten pertsonen eguneroko bizitza pittin bat errazagoa egitea da beraien helburua.

Udalarekin elkarlanean aritzeaz gain, tarteka sentsibilizazio ekintzak egiten dituzte, eta asmo horrekin ospatuko da Trauti Eguna maiatzaren 6an. Trautiko kideak herriko plazan egongo dira goizean zehar (11:00-14:00), beraien lanaren eta arazoaren berri ematen.



200€-ko isunarekin zigortzen da txartelaren iruzurrezko erabilera

Elbarrien aparkatze-txartelen erabilera desegokiez ohartarazi du udaltzaingoa

Elbarrien aparkatze-txartelaren erabilera desegokiak sarri ematen direla adierazi du udaltzaingoa, eta ohartarazi du, halakoak 200€-ko isunarekin zigortzen direla, trafiko legearen arabera. Txartela erretiratzea eta indargabetzea ere ekar dezake, erabilera okerra errepikatzen bada.

Ildo horretan, gogoratu behar da, txartelaren titularrak gidatzen doanean, edo bera garraiatzeko erabiltzen denean bakarrik erabil daitezkeela elbarrientzat erreserbatutako aparkalekuak. Eta halakoetan txartela ibilgailuaren aurreko aldean jarri behar da, kanpoaldetik argi eta garbi ikusteko moduan. Garbi eduki behar da, gainera, aparkaleku hauen helburua dela rotatorioak edo txandakakoak izatea, eta, beraz, ezin direla aparkaleku pribatu gisa erabili.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es





Kirol eremutik elkartasuna adierazteko LASTERBIDEAN

Euskal errepresaliatuek eta beraien senideek bizi duten egoera bidegabea salatu eta elkartasuna adierazteko nazio mailako lasterketa da Lasterbidean. Aurten bosgarren edizioa izango da, eta Oñatik hartuko du ekainaren 4an.

Orain artekoak Oiartzunen (Gipuzkoa), Larrabetzun (Bizkaia), Berriozarren (Nafarroa) eta Araian (Araba) egin dira. Aurtengoa Ipar Euskal Herrian egitea zen asmoa, baina hango araudia zorrotzagoa da (osasun agiria edo lizentzia eskatzen zaie parte-hartzaileei), eta horrek arazoak sor zitzakeela ikusita, berriro ere Gipuzkoara ekartzea erabaki dute. "Beraz, Debagoienean egitea erabaki



Iaz Araian egin zen Lasterbidean lasterketako irudia

genuen, eta ikusita Oñatik aukera ederrak eskaintzen dituela ingurune aldetik eta azpiegitura mailan, eta, gainera, udalaren aldetik ere samurtasunak izango genituela, bertara ekartzera erabaki dugu" azaldu digu Jose Mari Zugasti "Txiki" antolakuntza taldeko kideak.

HIRU LASTERKETA

Lasterbidean lasterketan parte hartzeko hiru aukera egongo dira: lasterketa luzea (8,3km) edo motza (3 km.), eta aurten, berritasun moduan, aurreneko aldiz egingo den Patin lasterketa (9,2 km.). Ikusi ibilbideak goiko taulan.

Errepresaliatuei elkartasuna adieraztea da Lasterbidean herri

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oiakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".

» IBILBIDEAK



PATIN LASTERKETA (9,2 km.)

Foruen enparantza - San Juan kale - Bidebarrieta - Kalegoiena - Maria Irizar - Kurtzebide - Moiuia - Errekalde - Lope Agirre - Portu - Kale Zaharra - Otadui - Kale Zaharra - Aita Madina - Foruen plaza (2 buleta).

LASTERKETA LUZEA (8,3 km.)

Foruen enparantza-San Juan kale - Bidebarrieta - Kalegoiena - San Martin - Murgixa - Olabarieta - Ugarkalde - San Lorentzo - Errekalde - Moiuia - Santa Marina - Patruie Kale - Kale Barria - Foruen plaza

LASTERKETA MOTZA (3 km.)

Foruen enparantza - San Juan kale - Bidebarrieta - Kalegoiena - Maria Irizar - Euskadi etorbidea - Moiuia - Errekalde - Bakardadeko Ama - Kale Zaharra - Lizaur - Aita Madina - Foruen plaza.

Izen-ematea: www.herrikrosa.eus

Lasterketa **luzean** edo **patin** lasterketan parte hartu ahal izateko www.herrikrosa.eus atarian eman behar da izena (12€). Lasterketa **motzean** (3€) parte hartzeko, egunean bertan, herriko plazan.

ekimenaren helburu nagusia, baina lehiarako aukera ere badago, noski, eta beste edozein lasterketatan bezala, sariak egongo dira lasterketa eta kategoria bakoitzeko lehen sailkatuentzat, sari bereziak gainera, presoek egindako eskulanak izaten baitira. Opari sorpresak eta zozketa bereziak ere egongo dira.

Lasterketa luzean 3 kategoria bereiztuko dira: Juniorrak (1994/97), Seniorrak (1974-1993) eta Beteranoak (1973 arte), eta denborak txip bidez kontrolatuko dira. (16 urtetik beherakoek ezin dute parte hartu lasterketa luzean). Patin lasterketan aritzeko derrigorrezkoa da kaskoa eramatea.

EGUN BETEKO EGITARAUA

Baina lasterketaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izango da Lasterbidean herri ekimenaren inguruan, ondoko taulan ikus daitekeen moduan.

Herri bazkaria kiroldegian izango da, eta 660 lagunentzako tokia egongo da. Beraz, kontuan hartuz antolatzaileek 1.500 inguru partehartzaile espero dituztela, bazkarirako txartela lehenbailehen hartzea komeni da, www.herrikrosa.eus atarian eman behar da izena (15€). Menua: pasta entsalada, okela saltsan eta postrea. (Menu begetarianoa ere egongo da aukeran, menestrarekin okelaren orde). Arrano tabernan ere jarriko dira txartelak salgai.

» EGITARAUA

EKAINAK 3 - LARUNBATA

20:00 Kontzertua Antixena gaztetxean 'Herstura' (Oñati) eta 'Viva Belgrado' (Andaluzia) taldeekin.



EKAINAK 4 - IGANDEA

08:30 Dorsal banaketa eta lasterketa eguneko izen-ematearen irekiera.

10:00 Patin lasterketa (9,2 km.)

11:00 Lasterketa luzea (8,3 km.)

12:15 Lasterketa motza (3 km.)

13:00 Sari banaketa

13:30 Etixerat-en ekitaldia

14:30 Herri bazkaria kiroldegian

16:30 Umeentzako ekintzak eta tailerrak Oinaztu aisialdi taldearen eskutik

17:00 Dantza bertikalak plazako pilotalekuan

17:30 Profesional ohien arteko pilota partidua plazako frontoian:

-Saralegi-Eulate / -Mikel Goñi - A. Gorrotxa

Ondoren Trikimailu taldearen kontzertua

Oharra: Egun guztian zehar kale animazioa, txosnak, material salmenta eta umeentzako puzgarriak egongo dira.

MAIATZAREN 13AN, LANEGUN NAZIONALA

Maiatzaren 13an Lasterbidean lasterketa luzeko ibilbidea ezagutzeko aukera egongo da antolatzaileen eskutik. Goizeko 10etan irtengo dira plazatik. Gero, 12:00etan, prentsaurrekoa emango dute, Lasterbidean eguneko egitaraua auzkezteko.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Oñati oinez, den-dena eskura

Eskolako Bidea egitasmoaren barruan bideo bat eta mapa bat prestatu dira, haurrak eskolara oinez joan daitezen sustatzeko eta herritarrek oinez mugitzera animatzeko

Eskolako Bidea elkarlana oinarri duen egitasmoa da. Bertan Oñatiko ikastetxeek eta guraso elkarteek parte hartzen dute, eta udalarekin elkarlanean honako helburuak lortu nahi dira: haurren autonomia sustatzea; mugikortasun jasangarria, osasuntsua eta aktiboa bultzatzea; haurrei herria hobeto ezagutzen laguntzea; bide-segurtasuna sustatu eta trafikoa baretzea; eta, batez ere, Oñati haurrentzat eta pertsona guztientzat atseginagoa izatea.

Helburu horien haritik, Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeekin elkarlanean egindako bideo bat eta mapa bat aurkeztu berri dira.

SENTSIBILIZAZIO BIDEOA

‘**Bagabiltz!**’ sentsibilizazio bideoak umeen eguneroko eskolako joan-etorria du hizpide, eta, gai horretatik abiatuta, pertsona helduek ere beraien joan-etorrien inguruan hausnarketa egitea bultzatu nahi da bideoaren bidez.

Eskolako bidea egiteko mugikortasun aktiboa -oinetz, bizikletaz edo patinetez ibiltzea- aukeratzearen onurak azaltzen dira, eta onura horiek osasuna, kutsadura, ikasketa, sozializazioa eta autonomiaren ikuspuntutik aztertu dira. Bideoan Oñatiko ikastetxeen hezkuntza-komunitateek hartu dute parte, haurrek, gurasoek eta irakasleek beraien ikuspuntua azaldu dute eta Udalaren ekarpenak ere ageri dira.

OÑATIKO MAPA BEREZIA

Horrekin batera, Oñatiko mapa berezi bat osatu da ikasleen ekarpenarekin, -ikusitako hurrengo orrialdea-. Pertsona guztientzat da baliagarria, eta mapan herrian interes-gune diren puntuetara zenbat metro dauden



Oinez, bizikletaz edo patinetez ibiltzea aukeratzearen onurak azaltzen dira bideoan



eta oinez iristeko zenbat minutu behar diren azaltzen da. Oñatin oinez dena eskura dugula erakusten du mapak, eta oinez ibiltzea garraibide segurua, osasuntsua eta ekologikoa dela aldarrikatu nahi da. Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu dute maparen osaketan, joan-etorrien denborak neurtuz.

Bai bideoa eta bai mapa udalaren web orrian eta ikastetxe-etako web orrietan izango dira ikusgai.

Amaitzeko, udaberri honetan oinez eskolara joateko ekimenak jarriko dira martxan, eta **Eskolako Bidea** proiektuko partaideek ekimen hauetan izaten den inplikazioa txalotu eta parte hartzera animatu nahi dituzte ume eta familiak. Denon artean, Bagabiltz!

“**Herrian interes-gune diren puntuetara zenbat metro dauden eta oinez iristeko zenbat minutu behar diren azaltzen da mapan. Udalaren web orrian daude ikusgai bai bideoa eta bai mapa.**”

» ELKAR-ENTZUTE (CO-ESCUCHA) TAILERRAK

“Elkarrekin hitz egiten dugu, baina ez diogu elkarri entzuten”

» ‘ENTZUTE AKTIBOA’ LANTZEKO TAILERRAK ANTOLATU DITUZTE. » MAIATZAREN 20AN IZANGO DA HURRENGO SAIOA. » HERRITAR GUZTIEI IREKIAK DIRA SAIOAK

Hitz egiten jakitea inportantea den bezala, entzuten jakitea ere garrantzitsua da. Zoritxarrez, baina, gaur egun ez dakigu entzuten. Hitz egiten dugu elkarrekin, baina ez diogu elkarri entzuten; ez behintzat, behar besteko arreta edo atentzioz. Zer erantzungo diogun pentsatzen egoten gara, besteak esaten duenari adi egon ordez.

Eta horixe da gaur egun dugun komunikazio arazoaren arrazoi nagusetako bat; besteak esaten digutena arretaz entzun ordez, ondorioak ateratzen eta juzkatzen hasten gara, eta ez gara gai beste iritzi batzuk onartzeko.

Horregatik, Reyes Diazek eta M^a Paz Letamendik Elkar-entzute (*co-escucha*) tailerrak antolatu dituzte, “uste dugulako inportantea dela entzute aktibo edo kontzientea lantzea eta enpatia garatzea”. Otsailean hasi ziren, eta orain arte hiru saio egin dituzte, hilean bat.

ENTZUN, MOZTU BARIK

Reyesek eta M^a Pazek jartzen dute hizketarako gaia (giza emozioak) eta, ondoren, 4-5 minutuko txandatan, aurrena binaka eta gero taldean, hitz egiten ari denari arreta osoz entzutea, moztu barik. Horixe izaten da elkar-entzute saioen dinamika. “Ez da erraza izaten lehenengo momentutik atentzio plenoa lortzea” azaldu digu Reyesek; “zarata handia dugu gure buruan, eta ez da erraza pentsamendu horiek guztiak aparte utzi eta gure solaskidea



M^a Paz letamendi eta Reyes Díaz dira elkar-entzute tailerren sustatzaileak

”
Komunikazio arazo handia dago gaurko gizartean. Horregatik, inportantea da entzuten jakitea eta enpatia garatzen ikastea

esaten ari den horretan arreta osoa jartzea. Baina abiapuntu bezala behintzat, inportantea da horretaz konturatzea eta kontzientzia hartzea”.

Azken batean, atentzio osoa praktikatzea da helburua, eta gure solaskideak transmititu nahi digun mezua uulertzen ahalegintzea. “Horrela, hitz egiten ari den pertsona inportantea sentitzen da, konfiantza giroa sortzen da, gure barrena askatzen dugu, denon iritziak inportanteak direla aitortzen dugu... onura asko ditu entzute aktiboak” dio M^a Pazek.

HURRENGOA MAIATZEAN

Orain arteko saioen balorazio positiboa egin dute Reyesek eta M^a Pazek. “Bataz beste 12-13 lagunek parte hartu dute eta oro har, jendea oso gustura egon da. Konfiantza giroa sortu da



Elkar-entzute saio batean aritutako taldea

PSICOLOGIA ZENTROA
ROSA RUEDA
Zubilaga Auzoa, 20
943 04 74 06
psicologia-rueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

ANTSJETATEA
ESTRESA
TIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Amalia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Iluskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaliagartua@gmail.com • Oñati

eta jarraitzeko gogoz dago jendea. Bi orduko saioak motz geratzen dira beti”.

Hurrengo saioa maiatzaren 20an (larunbata) izango da, Eltzian (ETEO zaharrean), 18:00-20:00. Oraingo honetan ‘amorrua’ izango da hizketa gaia, eta irekia da; interesa duen edozein herritarrek parte har dezake. Bertan azaldu eta listo. Dohainik dira saioak.

‘BIZIPOZ’-etik SORTUA

Zahartze aktiboa sustatzeko asmoz, udalak eta ‘Want’ Junior enpresak antolatutako ‘BiziPoz’ programatik sortutako ekimena da ‘Elkar-entzute’ tailerra. M^a Paz Letamendi eta Reyes Diaz adituak dira garapen pertsonal eta espiritualarekin lotutako gaietan, eta ildo horretan pentsatu zuten entzute aktiboa lantzeko tailerrek abian jartzea.

BiziPoz programa berriz ere abian

ZAHARTZE AKTIBOA SUSTATZEA DA HELBURUA ETA 55 URTETIK GORAKO HERRITAR GUZTIEI DAGO ZUZENDUA

Zahartze aktiboa sustatzea helburu duen BiziPoz programaren edizio berri bat, hirugarrena, jarri du abian udalak, Enpresagintza fakultateko *Bizipoz* taldearekin elkarlanean. Ondoko taulan ikusten den moduan, bost tailer antolatu dituzte, osasuna, teknologia berriak eta mundu mailako gaiekin lotuta. Elkarrekin lotura berezirik ez duten gaiak dira, eta, beraz, *Bizipoz* programaren edizio berri honetan bakoitzak nahi duen tailerretan parte hartzeko aukera izango du. Astearte arratsaldetan (18:00-19:00) izango dira saioak, Euskaldun Berria Gelan (Bidebarrieta, 18).



lazko BiziPoz programan parte hartu zutenetako batzuk

Tailerak

- ▶ ‘Brexit, Trump eta Errefuxiatuak’ (maiatzak 16)
- ▶ ‘Alkohola, kafea eta tabakoaren eragina osasunean’ (mai. 24)
- ▶ ‘Zaintzaileak bere burua zaintzearen garrantzia’ (mai. 30)
- ▶ ‘Globalizaioa’ (ekainak 6)
- ▶ ‘Telefono mugikorak: zertan lagundu ahal digute eguneroko bizitzan’ (ekainak 13)

IZENA EMATEKO: 638516973 / eider@bizipoz.org

Gai bakoitzean aditua den pertsona batek gidatuko du tailerra

ZATOZ INFORMATZERA!!

OÑATIKO
aukerarik zabalena

Arantzazuko Arria San Martin
Adosatuak Kurtzekua Kurtzekua

italde www.italde.com Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07

www.oñatiturismo.eus webgunea berri du udalak

Bost hizkuntzatan eskaintzen da informazioa

Teknologia berriak baliatu, turismoa sustatzeko. Horixe da Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia (OGTA) egiten ari den apustua. Sare sozialetan presentzia handitu eta *on line*-marketing estrategiak erabiltzeaz gain, webgune berria prestatu du, gure herriko baliabide turistikoak munduari erakusteko.

Moderno, argia, dinamikoa eta praktikoa da atari berria, eta telefono mugikorren interfazera egokitzen da, horixe baita bezeroen %50ek erabiltzen duten gailua edo bidea kontsultak egiteko. Bost hizkuntzatan (euskara, gaztelera, katalanera, ingelesa eta frantsesa) eskaintzen du informazioa, eta berrietasunen artean, erreserbak *on line* egiteko aukera azpimarratu behar da. "Oraingo, Arrikruz-Oñatiko kobetako sarrerak hartzeko aukera dago bakarrik, baina etorkizunean, Oñatiko zerbitzu eta establezimendu guztiak proiektuan sartzea da



Arrikruz-Oñati koba ikusteko sarrerak *on line* erosteko aukera eskaintzen du

helburua" adierazi du OGTAko gerente Ikerne Altubek.

Gainerakoan, gida praktikoa bat ere aurkituko du bisitariak, Oñatin asteburu batean edo zubi batean egin daitekeenaren inguruko proposamen ezber-

dinekin. Horrez gain, jakina, turistak behar duen informazio praktikoa guztia ere eskaintzen du: Oñatiko ondareari buruzko informazioa, natur baliabideak, jatetxe gida, lo egiteko ostatuak, herriko jaia...

OSPATZEKO ARRAZOI UGARI

Aurtengoa urte seinatua izango da Oñatiko turismo sektorearentzat. Alde batetik, 25 urte betetzen dira gure herrian turismo zerbitzua jarri zenetik, eta 15 urte turismo bulego berria (unibertsitate parean) zabaldu zenetik. Gainera, ekainean 10 urte beteko dira Arrikruzeko koba bisitariarentzat zabaldu zela.

Ildo horretan, hainbat datu ere eman ditu OGTAk. Hala, hamar urte hauetan 147.603 bisitari jaso ditu Arrikruz-Oñatiko kobak, eta Oñatiko turismo bulegotik 327.276 turista pasa dira 25 urte hauetan zehar. Datu onak dira, inguruetakoa beste turismo zerbitzu eta baliabideekin alderatzen baditugu. Gainera, turismo bulegoko eta kobako kudeaketa batera zenetik (2014) nabarmen igo da (%24) bisitari kopurua, eta krisiaren urte txarrenak ere atzean gelditu direla kontuan hartuz, etorkizunera begira baikorrak dira udaleko turismo saileko arduradunak.



Udala, OGTA, turismo bulegoa eta Arrikruzeko kobako ordezkariak 'Badugu zer ospatu Oñatin' kanpaina aurkezten

Hamar utetan 147.603 bisitari jaso ditu Arrikruzeko kobak

Urte seinatua hau ospatzeko ekintza berezi ugari antolatuko dituzte. Ekainean, adibidez, Arrikruzeko lehoiaren hezurdura ikusteko irteera antolatuko dute Irungo Gordailura, eta uda nahiz udazken partean ere jarduera berezi ugari antolatuko dituzte.



- Pentsuak
- Lan tresnak
- Haziak
- Landareak
- Lan erropak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
eta beste hainbat gauza...

943 905 740 - 663 384 052

Maiatzeko bisita gidatuak



MAIATZAK 14

12:00 Kakao zaporea Ignaziotar lurraldean. Euskal Herriko lehen unibertsitatea, Jesuitak eta Medikuntzaren hastapenak Oñatin. Bisita gidatua turismo bulegoaren eskutik. Erreserbak: 943783453

18:00 Magdalenako ermita. Borjako San Frantzisko duke santuaren bizileku izan zen ermitara bisita. Erreserbak: 943783453

MAIATZAK 20

13:00 'Puntaik Punta' Debagoieneko Bidezidorren Jaialdiaren baitan, 'Oñati, muino ugariak tokia'. Bisita berezia, turismo bulegoaren eskutik (943783453)

12:00 'Txokolatea, tontorretako elikagaia'. Bisita gidatua Txokolateixaren eskutik. Erreserbak: 605763595.

MAIATZAK 21

09:30 Espeleo-Arrikruz 18 urtetik gorakoentzat. Puntaik Punta' jaialdiaren baitan. Plaza mugatuak. Erreserbak: 943082000.

MAIATZAK 27

15:30 Espeleotxiki 6 urtetik gorakoentzat, familian egiteko plan bikaina. Erreserbak: 943082000.

Goribar eta Garibaiko errotonden beharra eskura Olanori

Martxoko zenbakian aurreratu genuen bezala, Goribarren (Urbietan parean) eta Garibain (Ulma Eraikuntza parean) biribilgune bana urgentziaz egokitzea eskatu dio udalak foru aldundiari, eta Markel Olano diputatu nagusia Arantzazuko aterpetxearen inauguraziora etorri zela baliatuz, Mikel Biain alkateak eskura eman zion GI-2630 errepedeko tarte hori ordenatzeko udalak, Ulma eta LKSrekin batera, prestau duen plana. Gogoratu, egunero 10.000tik gora ibilgailuren joan-etorria jasaten duela errepede horrek, eta istripu ugari gertatu izan direla bertan. Bai udalak, bai Ulmak eta baita bertako bizilagunek ere uste dute oso premiazkoa dela errotonda horiek egitea.



Plazako pilotalekua eta jolaslekua argiztatzeko lanak hasi dira

Plazako frontoia eta aldameneko jolaslekua argizatzea erabaki du udalak, hainbat herritarren eskaerari erantzunez. Dagoeneko, hasi dira argi fokuak eusteko pilotalekuko harmailetan jasoko diren 6 metroko bi zutabeentzako oinarriak prestatzen, ondoko argazkian ikusten den moduan. Hiruna argi proiektore jarriko dituzte zutabe bakoitzean, eta beste zortzi foko azokako eta Gazteleku-Ikastolako eraikinetako hegaletan jolastokia argitzeko. Argizatze lanek 17.350 euroko aurrekontua dute, obra zibila kontutan hartu barik.



Giza baliabideen sailerako langile bat kontratatatzeko deialdia

Udaleko giza baliabideen antolakuntza eta kudeaketa hobetzeko dauden aukerak aztertzeko aldi baterako langile bat kontratatatzeko deialdia egin du udalak. Zuzenbidea, ekonomia edo enpresa zientzietako gradua edukitzea eskatzen da, eta 4. hizkuntz eskakizun maila. Maiatzaren 15a da eskaerak udal bulegoetan aurkezteko azken eguna. Udalaren webgunean kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

Enpresa berriak sustatzeko laguntza deialdia

Enpresa berrien sustatzaileei emango dizkien laguntzen oinarriak eta deialdia egitea erabaki du udalak. Alde batetik enpresaren bideragarritasun azterlana egiteko aholkularitza eskainiko da, eta, bestalde, sustatzaileek sortutako lanpostu bakoitzeko 1.500 euro (3.000€ lehen sektorekoa bada). Laguntzak jasotzeko sustatzaileak Oñatin erroldatuta egon behar du eta enpresak goitza bertan izan.

caravanas  oñate




• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zuzendaritza, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zuzendaritza, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kalea, 32 (erakusketa)

Energia berriztagarrien garapena aztertzeko beka emango du udalak, Goiener-ekin lankidetzan

Ingurumen arloko ikerketak egiteko bi urtetik behin ematen duen bekarako deialdia egin du udalak. Aurten gainera, Goiener kooperatibak ere babesten du deialdia 2.000 euroekin eta, beraz, guztira 14.000 euroko dotazioa izango du beka. Aztertu beharreko gaia berriz, hauxe: 'Energia berriztagarriak: iragana, oraina eta etorkizuneko aukerak Oñatiko udalerrian'. Oinarrietan esaten den moduan, Oñatiko herria aitzindaria izan da energia berriztagarrien ekoizpenean (ur jauziak) eta gaur egun ere udalaren helburu estrategikoen artean dago eraginkortasun energetikoa areagotzea, kontsumoa jeistea eta energia iturri berriztagarriak garatzea. Horregatik, energia berriztagarrien inguruko azterlana egitera bideratu du aurtengo beka deialdia. Bakarka edo taldeka aurkez daiteke beka deialdira. Interesatuak maiatzaren 22a baino lehen aurkeztu behar dute proposamena. Udalaren webgunean kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.



“Ikasketak homologatzera animatu nahi ditut etorkin guztiak”

Udaleko Berdintasun sailak gonbidatuta, Bidez Bide elkarteko Katia Reinberg egon zen Oñatin, atzerriko ikasketak homologatu eta baliozkotzeko egin beharreko tramiteen inguruko argibideak ematen. Etorkinentzako eskubide eta betebeharrak berdinak eskaintzen dituen gizarte inklusibo baten alde lan egiten duen elkartea da Bidez Bide, eta, besteak beste, atzerrian egindako ikasketak homologatzeko laguntza eskaintzen du.



Ildo horretan, Reinberg-ek argitu zuen ez dela beharrezkoa paperak eguneratuta edukitzea ikasketak homologatzeko. Gutxienez, Batxilergoko ikasketak homologatzea gomendatu zuen, ate eta aukera asko zabaltzen dituelako (lan poltsak, formazio ikastaroak...). Bidez Bide-k laguntza pertsonalizatua eta doakoa eskaintzen du homologazio-tramiteak egiteko, aurrez txanda eskatuta (654051231 / homologacionbidezvide@gmail.com).



Maiatzaren 6ko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Oñatiko Sarek

‘Larriki gaixo dauden presoak etxera!’ lelopean, maiatzaren 6an Gasteizen egingo den manifestaldira joateko autobusa antolatu du Oñatiko Sare plataformak. Txartelak (8€ joan-etorria) Arrano, Boga eta Ona tabernetan eskura daitezke. Autobusa 16:00etan irtena da postetxetik.

Ekintzaitza sustatzeko aholkularitza zerbitzu eraginkorra eskaintzea proposatu du EAJk

Negozio bat ireki edo lan irteera berriak bilatzen ari direnei laguntzeko, aholkularitza zerbitzu eraginkorra eskaintzea proposatu du EAJren udal taldeak, prentsa ohar bidez. Era berean, adituen gaitasuna eta eskarmentuaz baliatuz, mentore edo tutore espezializatuak bide-lagun izatea ahalbidetuko luketen mentoring programak abian jartzea proposatzen dute jeltzaleek. Eta horrez gain, langabetuak lan munduan txertatzeko formakuntza ikastaroak antolatzeko eskaera ere egin dio EAJk udal gobernu taldeari.

HIRIGINTZA BATZORDEAREN ORDUTEGIA EZTABAIDAGAI. EAJren udal taldeak salatu du Hirigintza batzordearen ordua 18:00etatik 17:00etara aurreratu duela EH Bilduk, eta, ondorioz, EAJko ordezkari Jon Kepa Gerrikagoitiak ezin duela parte hartu. Lan batzordeetako ordutegiak adostuta jartzea eskatu du EAJk, beti egin den bezala.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

joste tailerra

Justun Chic

Goluri Etxebarria Arzuaga

- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

Motxon kalea, 3
T. 635 749 477

Adin guztietarako klaseak



Guztiona, guztion artean



Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!

Batxilergoa: Zuazola

- Banan-banako orientazio akademikoa: Unibertsitatera edo Lanbide Heziketara.
- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Talde txikiak.
- Teknologia berriak.
- Hizkuntzei arreta berezia:
 - Euskara, EGA eskuratzeko aukera.
 - Ingelesa, elkarrizketarako laguntzaileekin.
 - Frantsesa, Alliance Francaise titulua lortzeko aukera.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak (curriculum garatzeko).

Modalitateak:

Zientziak: Matematika, Fisika-Kimika, Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa, Teknologia,...

Gizarte zientziak: Historia, Geografia, Matematika, Enpresaren Ekonomia...

AURREMATRIKULA: maiatzaren 2tik-12ra.

Ate irekiak: maiatzaren 3an 18:00etan Zuazola egoitzan.

Heziketa Zikloak: Larraña

Erdi mailako Heziketa zikloak:

- Mantentze-Lan Elektromekanikoak
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol Ekintzen Gidaritza

Bestelako Hezkuntza eskaintza:

- Lanerako prestakuntza: Langile eta langabetuentzat ikastaroak doan.
- Eskaeren araberako prestakuntza.

Ate irekiak: maiatzaren 24an, 18:00etan Larraña egoitzan.



Apirilaren 12an bete zituen ehun urte, Madrilén bizi den Juli Ayastuyk, Askazubi baserriko alabak.

100 urte bete ditu Juli Ayastuyk

Juli Ayastuy Billarrek ehun urte bete zituen apirilaren 12an. Madrilén bizi da Juli aspaldiko urteetan, baina Oñatin sortua da, Zubillagako Askazubi baserrian, hain zuzen. Eusebio Ayastuy eta Josefa Billarren (Arretxekua) alaba, sei anai-arrebatan laugarrena da Juli (bera bakarrik bizi da). Hamalau urteko neskatila zela, Usakora joan zen Juli, umezain lanak egitera. Bi urte eman zituen bertan, eta handik Dukien etxera joan zen, eta hamasei urte egin zituen bertan, Pedro Martínez de Irujo dukea eta honen seme Igancioren zerbitzari lanetan. Bertan ezagutu zuen Adolfo Pascual Larramendi, dukearen txoferra eta mekanikoa, eta harekin ezkondu ondoren, Madrilera joan zen bizitzera. Argazkian dago Juli, bere alaba Maria Jose, eta urtebetetzea ospatzera Oñatitik joandako Axun Urtaza, Milagros Kerejeta eta Maria Apaolaza senideekin batera.

Dokumental emanaldi solidarioa

'NACIDO EN SIRIA' FILMA EMANGO DU HOTZ-OÑATIK MAIATZAREN 11N

Hotz-Oñati taldeak Hernán Zin-en 'Nacido en Siria' (Espainia, 2016) film-dokumentala emango du. Sirian gerra zibila hasi zenetik sorterrria utzi behar izan duten 4 milioi errefuxiatuk eta, bereziki, haurrek bizi behar izan duten sufrikarioa azaltzen du. Sarrera (4,50€) bidez batzen den dirua SOS Refugiados Hernanirri emango zaio, erosi duten furgoneta ordaintzenko. Kultur etxeko zine aretoan izango da emanaldia, 20:00etan.



'Ermitaz ermita, Oñati ezagutzen' Ganbara Kantu Esklaren eskutik

Kultura eta hezkuntza, musika eta ondarea uztartzen dituen ekimena jarri du abian Ganbara Kantu Eskolak, Artixa taldea eta herriko ikastetxeekin elkarlanean. Uztaila bitartean bost kontzertu eskainiko dituzte herriko bost ermita ezberdinetan. Hona hemen lehenengo hirurak: San Martinen (maiatzak 13, 19:00), Zubillagan (mai 20, 19:00) eta San Lorentzon (ekainak 3, 19:00). Horrez gain, liburuska bat ere argitaratu dute, gaur egun Oñatin zutik dauden 14 ermitei buruzko informazioarekin, eta erakusketa bat ere jarriko dute parroikiko klaustroan (maiatzak 6,7,13 eta 14) ermitetako argazkiekin, ikasleek prestatutako bideoekin, eta Joxe Urzelai 'Milikua'ren kuadroekin.

Maria Cruickshank Udal Euskaltegian

MAIATZAK 25, 18:00

Maria Cruickshank artista oñatiarra euskaltegian izango dugu hilaren 25ean, bere ibilbide artistiko eta profesionalaz hitz egiteko. ETBko *Goenkale* saioan egin zen ezagun, horrela sartu baitzen Euskal Herriko sukalde gehienetan. Gerora, Espainiako eta Ingalaterrako beste telebista-kate batzuetan ere aritu izan da. Pantaila handian ere ikusi dugu, hala nola, *Negociador*, *Igelak* eta *Villaviciosa de al lado* filmetan, eta baita antzerkian ere, *Kondesaren erretratua* eta *Eta zer II* lanetan besteak beste. Bere hasierako ibilbideaz (formazioa, casting-ak...), euskal antzerkiaren harrobia izan den Goenkale saioaz, kanpoan izan duen esperientzia profesionalaz eta gaur egun esku artean dituen proiektuez hitz egingo du hitzaldi-solasaldi honetan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Euskararen erabilera Oñatin

MAIATZAK 10, EUSKALDUN BERRIA GELAN, 18:00

Iazko udazkenean Oñatiko kaleetan egin zen neurketaren emaitzak aurkeztuko ditu Udaleko Euskara sailak eta Soziolinguistiko Klusterrak.

Atzegi Eguna Oñatin, maiatzaren 13an

Bailarako Atzegi-ko neska-mutilek eta senideek Oñatin ospatuko dute Atzegi Eguna maiatzaren 13an. Gaztelekuan ongietorria (12:00) egin ondoren, Oñatzeko umeen dantza saioa ikusi (13:00) eta jarraian trikipoteoa egingo dute, eta Zubikoa kiroldegian izango dute bazkaria (14:00).

Camino Oscoz, errepublikazalea zelako erail zuten maistra nafarra

Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak Oñatin dituen kideek gonbidatuta, argitaratu berri duen 'Camino Oscoz y otras historias del 36' liburua aurkeztuko du Joseba Eceolazak maiatzaren 5ean kultur etxean.

Partido Comunistako eta UGTko kidea zen Camino Oscoz emakume nafarraren bizitza kontatzen du liburua. Errepublikazalea izateagatik 1936an Nafarroan erail zituzten 47 emakumeetako bat izan zen. "Memoria historikoaren arloan dihardugunok zor handia dugu emakume-ekiko" adierazi digu liburua egileak; "norbaiten alargun, emazte edo alaba bezala agertu ohi dira, eta, aldiz, oso gutxitan aitortu diegu balore errepublikazaleen alde duintasun handiz egin zuten lana".

Camino Oscoz irakaslea zen, eta 1936ko abuztuaren 10ean hil zuten, 26 urte zituela, hamar egunez atxilotuta eduki eta sekulako kalbarioa pairatu ondoren. "Iraindu, jipoitu eta bortxatu egin zuten, eta, azkenean, Urbasako Balcón de Pilatos' begiralekutik behera bota zuten". Caminoren erailketak gainerako emakumeak beldurtzeko helburua izan zuela uste du Eceolazak.

Camino Oscozen eskutik, 1936ko altxamenduaren ondoren Iruñean eta Nafarroa osoan bizi izan zen errepresio giro beldurgarria islatzen du egileak liburua. Gogoratu, gerra frontierik egon gabe, 3.500 pertsona erail zituztela Nafarroan, horietatik 47 emakumezkoak.



'Camino Oscoz y otras historias del 36' liburua aurkeztuko du Joseba Eceolazak maiatzaren 5ean, kultur etxean, 19:00

ibiza eta Mediterraneoan jatorria duten azken moda-joerak aurkituko dituzu Candeluka jantzi-dendan. Proposamen orekalua prezioan eta erabilgarritasunean; egoera desberdinetan ondo konbinatzen den arropa. Gehien bat emakumeen jantziak ditugu, baina haur eta gizonetzkoena deskuidatu gabe. Zatoz bisitan gurerall

Ramon Irizar, 2 • Tel. 943 08 81 84 • www.candeluka.com • Candeluka

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Lasterbidean

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

ERAKUTSI ERRAUSTEGIAREN KONTRATUA

Igor Tomé (Debagoiena Zutik)

Joan den astean, jarraian datorren Jidatzia aurkeztu genuen Debagoieneko mankomunitatean. Herritar talde bat antzerako testuak sartzen aritu gara Gipuzkoako udaletxe desberdinetan, eta erraustegiaren bultzatzaileek gobernaturiko oso udaletxe gutxi erantzun dute (eta erantzun gehienak benetan lotsagarriak izan dira). Debagoienan ere antzera gertatu da. Mankomunitatearen partetik antzerako zerbait espero dugunez, berau publiko egitea eta gai honetan instituzio batzuek darabilten ezkutukeria publikoki salatzea erabaki dugu. Hona hemen testua:

Orain gutxi jakin dugu gipuzkoar guztion diru publikotik 60 milioi euro ordaintzen ari garela bankari, EAJk ezkutuan sinatu, angulekin ospatu eta orain aste batzuk epaitegietan defendatu duen tratu horrengatik. Informazio zehatzen faltan, kalkulatu da 1.500 milioi euroko zor ilegítimoa eragingo digula erraustegiak, herriei zor izugarriak eraginez. Gainera, diru horretatik ehunka milioi euro zuzeneko irabaziak izango direla enpresentzat. Jakin dugu erraustegiaren proiektua sinatuz gero, ondoren albo batera uzten bada 600 milioi euro oparitu beharko dizkiegula enpresei, "kalte ordain" bezala. Herritarron dirua, zuzenean %1aren poltsikora kontratu eta kalte ordain kontzeptuetan.

Garai latzak bizi ditugu. Gizarteko sektore handi bat kolpatutik dago ekonomikoki, eta aberatsen eta gainontzeko guztion arteko tartea izugarri

hazten ari da. Bitartean, Gipuzkoako Aldundiak behar ez dugun erraustegi bat eraiki nahi du diru publikoarekin nola edo hala. Albiste solteak ateratzen diren arren, ez dugu 35 urtetarako zorpetuko gaituen kontratuari buruzko informaziorik.

Horrengatik, zera eskatzen dugu:

- 1- Gure izenean 2017ko Apirilaren 3an sinatu den kontratua ikusi nahi dugu. Egia jakin nahi dugu.
- 2- Mankomunitateei eskatzen diegu herritarrak informa ditzatela. Erraustegira bideratu nahi dituzten eta denonak diren milioika eta milioika euro horiek nondik aterako dira? Zenbat ordaindu beharko dute udalek? Gipuzkoako Aldundiak jarriko al du dirurik?
- 3- Erraustegia eraikitzean, sustatuko al duzue birziklapena zuen parte diren udaletan?
- 4- Alternatibarik bilatu al da?
- 5- Planteatu al duzue sinatu berri den kontratu hau baino merkeagoa dela mankomunitateek zaborren tratamendu eta bilketaren eskumena berreskuratzea?

ESKER ONEZ, HERRI EKIMENEN ALDE

Maidier eta Aratz Arregi

Lehen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den apirilaren 1ean Joseba Arregiren ekitaldira hurbildu ziren guztiei eta bereziki, antolakuntzan burubelarri ibili den talde apartari. Ekitaldian bertan ere ekarpenak egin zituztenak (Josebaren eta, oro har, Euskal gizartearen egoeraren gainean azalpenak emanez) ez ditugu ahaztu nahi. Gure eskerrak beroenak.

Espetxe politika krudel baten biktima da Joseba, dagoeneko 25 urte preso, ia bizitza laurden eta hamar urte gehiago luzatzearen mehatxuarekin... Honelako iniziatibek sostengu emozional handia suposatzen dute presoarentzat eta bere senideentzat. Oñatiar askok Euskal presoak babesten dituztela erakutsi digute, diskurtso politiko gabe, giza eskubideen defentsa irmo baten aldeko apustua eginez eta Josebaren hitzak gure bihurtuz "horrelako herri eta herritarrekin gizarte hobe batera" goazela sinistu nahi dugu.

Pausoz pauso guztiak etxean izan arte!

JOKU-MAKINAK

Jose Antonio Amundarain eta Alberto Etxeberria

Apirilako 271. zenbakiko Kontzejupetiken datorren albisteak harrirituta utzi gaitu irakurle batzuk.

Udal aldizkari batean era askotariko informazioa eman behar dela uste dugu eta horrela izan behar duen kontzentzimendu osoa daukagu gainera, baina kasu honetan, enpresa pribatu bat apustuak egiteko makinaren teknologia eta ezaugarriak esplikatzeko jendeak dirua jokatu dezan, ez dugu ikusten pertsonen interesentzako onura bat bezala, guztiz kontrakoa, dirua jokatzera xaxatu eta menpekotasuna sortzeko arriskua gehiago zabaltzea baizik.

Kontzejupetik ideia guztien agertokia izan behar du diru publikoarekin sostengatzen delako, baina enpresa pribatu baten ideia ahal den diru gehien irabaztea baldin bada jokurako makinak jarriaz jende askok apustu asko egin ahal izateko, ez dugu uste

Kotzejupetik aldizkaria izan beharko lukeenik planteamendu horiek egiteko lekua eta altaboza.

Enpresa horrek bere negozioa nolako eta zertarako den jakinarazi nahi badu berak jakingo du zer egin, bainan ez dezala baliatu Udal aldizkaria jokia eta pusutuaren zaletasuna bultzatzeko herrian.

HILTZAILIEK IDATZITAKUA LAIXATUAZ

Nabarraldeko sustatzaile Juankar Olaeta eta Iñaki Idigoras

Esolan, eta Ikastolan ere, Historia ikasi dugu, besteren artean.

Negu Gorriak-ekin, Fermin Mugu-ruzak kantatzen zigun:

Irakatsitako historia hiltzaileek idatzi zuten

eta ikasi genuena sinetsi ere egin genuen.

Baina eta, zein zen gure historia? nork idatziko zuen? nork irakatsi?

Horretan dabil Nabarralde. Historiariako pasadizoak, datuak, ikertu eta geure ikuspuntutik errelato edo kontakizun propioa eraikitzen.

Berriki gurekin izan dugu Nabarraldeko Beñi Agirre, lan guzti honen emaitzaren zati txiki bat partekatzen. Nola Gaztelako Alfontso VIII-k, interes ekonomikoak medio, 1200 urtean Nafarroako kostaldea bereganatzeko konkista burutu zuen. Horrela, nafar erregeei arantzelik ordaindu gabe, gaztelako artilea exportatzeko bidea ireki zuen. Inbasio honen ondorioz, ez baitzen ez lehena ezta azkena ere izango, Nafarroak beste hiru tenentzia galdu zituen: Atxorrotx, Ipuzkoa eta San Sebastián de Hernani. Ondoren sortu zen, Gaztelaren menpe, gaur egun ezagutzen dugun Gipuzkoa, eta ahaide nagusiak ere. Honen harira, Nabarralde berak Atxorrotzeko gazteluaren

inguruan ekoiztako bideo dokumental eder bat ikusi ahal izan genuen.

Nabarraldek ikerketa bide luzea egina du iada, eta egun sozializazio fasean murgilduta dago, geure ikuspuntutik idatzitako historia ezagutzera emateko.

Katalanek ez bezala, ekitaldian ez genuen 'saldu' hau guztia nola den posible. Oñatiar batek partekatu bezala, erakundeek nekez finantzatzen eta are gutxiago lantzen dituzte Kultura eta Historia. Beste alor askotan bezala, euskaldun gutxi batzuen lan tematiak eta beste zenbaitzuen laguntza eta ekarpen ekonomiko xumeei esker ari gara kontakizuna sortu eta zabaltzen.

Besteen (eta geure) gurekiko errelatoari buelta ematea, laixatzea, da erronka.

"Zazpiak bat" baino, bat zazpitan, ala hirutan, banatuta gaudela ohartzeko.

Euskera "Lingua Navarrorum" dela gogoratzeko.

"Nafarroa Euskadi da" baino, euskaldunok nafarrak garela ohartzeko.

Nortzu garen eta nondik gatozen ezagutzeak lagunduko baitugu zer izango garen erabakitzen.

Alor honetan eta gizarte zibiletik ekarpenik egin nahi baduzu, ongi etorria zara Nabarralderen sustatzaile taldera.

Bide batez esker mila Oñatiko Udaleko zinegotzi eta langileei, ekitaldi honetarako emandako babes eta zabal-kundeagatik.

EZIN IKUSIZKOAK ETA EZINBESTEKOAK

Marijo Etxegoien, Oñatiko EAJ-PNVren Berdintasun batzordeko zinegotzia

Emakundek 2016ko Berdintasunerako Saria eman dio Marta Macho Stadler EHUKo irakasleari, emakumeek zientzia-arloan egindako lanaren zabalkundearen egindako ahaleginaga-

tik. Adela Moyua (†) Oñatin jaiotako emakume zientzialaria EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean irakaslea izan zen; bertako Berdintasun Batzordeak Leioako Paraninfo ondoko gelari **Adela Moyua** izena jarri dio berriki. Gogora ekarri nahi ditut bi emakumeok eta haien ekarpena agerian jarri.

Horren harira, unibertsitateetako ikasle gehienak emakumezkoak dira egun, hain zuzen graduatutakoen % 65. Hala ere, ehuneko horrek behera egiten du karrera zientifikoan gorantz egin ahala. Horrela, neskatilak, neskak... ia ez daukate zientzia-arloan jardun duten emakume-eredurik. Seguruenez, eredu horiek ez egoteak emakumeak zientzia-arlotik aldentzen ditu.

Bestalde, *Figuras ocultas* filmak 60ko hamarkadan NASAn lan egin zuten hiru emakume matematikari beltzen lan-bizitza historia kontatzen du; hain zuzen, espazioan nagusitasuna lortzeko lehian, emakume bikain horien kalkuluak esker lortu zuten iparramerikarrek espazioko lasterketan aurre hartzea. Aintzindari izan ziren, baina oztopo ugariko lanbide-karrera eduki zuten, beltzak eta emakumeak izateagatik. Horixe izan da emakume askoren patua: historia-liburuetan ikusezin bihurtu dituzte.

2017. urtean Txantxiku Ikastolak 50. urteurrena ospatzen da, eta urte haietan ikaragarritzko lana egin zuten emakumeak gogoratu nahi ditut. Oñatiko Ikastolaren sorreran dirua batzeko zabaldu zen tabernan makina bat oilasko, piper eta ogitarteko... prestatu zituzten emakumeak, hain zuzen ere. Borondate onez, isil-isilik, lan eta lan egin zuten emakume bikainak! Haien lana ezin zaigu ahaztu, ezinbestekoa izan da eta! Bejondeiela!

Olabartako jaietako zenbaki sarituak:

1. 3080
2. 1961
3. 2314

A NE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeon jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
 Faxes: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

“Bai baina...”

‘Hautsak harroketan’



ERASOAREN

ERRUDUN

BAKARRA

ERASOTZAILEA

ZU ZARA !

A tzo eraso sexista bat gertatu zen, beste bat, baina emakumearen errua izan zela argi eta garbi dago, berak probokatu baitzuen erasotzailea: hasteko, oso probokatzaille jantzita zihoan, bera hasi zen eta gainera oso gustura zebilen, neskak beti berdina egiten duela ere esan behar da eta noizbait horrelako zerbait gertatuko zitzaiola argi zegoen. **Ez, ez eta ez!!!** Sarritan, gizarte patriarkal/matxista honetan biktimia izan den emakumea bera izaten da kritiken jomuga; guztiok dakigun arren erasoaren errudun bakarria erasotzailea bera dela. Erasotzailea bestea izan den arren, emakumearen inguruko mila kontu aterako dira agerira, baina zergatik? Erasotzaileen jarrera inork ulertu ezin duelako dela esango genuke, baina auskalo. Hala ere, argi izan dezagun guztiok: gu nahi dugun bezala jantziko gara; baina ez inor probokatzeko, horrela gustura sentitzen garelako baizik! Dantza egin nahi badugu, dantza egingo dugu! Jendea ezagutu nahi badugu, jendea ezagutuko dugu, baina horrek ez du esan nahi horretaz gain beste ezer nahi dugunik! Erasoekin amaituko dugu jendarte eredu hau hankaz gora jarri eta berria eraikitzean, hasi gaitezen! Ezetza ezetza da!

DIOGENES

Noizbehinka irakurri izan ditugu honelakoak: "Agure bakarti bat hilda topatu dute bere etxean; berak pilatutako zaborrez, kartoi eta botila hutsez inguraturik bizi izan da azken denboraldi honetan. Zikinkeria artean. Gizarajoak **Diogenesen sindromea zuen**".

'Sindrome' hitz hori (gaixotasun edota afekzio batek dituen sintoma multzoa) Diogenesekin lotu duten idazle, sasi-jakintsu edo eritzi sozialek ez dute tutik ere ulertu Kristo aurreko (400. urtean) filosofo greziar horren pentsamendu eta jarduera iraultzaileak.

Bere bizitzari eta ohituere buruz, zenbat kondaira, mito eta pasadizo iritsi zaizkigu gaurdaino: Berak ez omen zuen ezer idatzi; dakigun guztia ahoz-ahoz jasota eta zabaldutakoa da, baita ere asmatutakoa eta ondorengo zenbait filosofo idazlek idatzitakoa. Batzuk oso entzunak ditugu: barrika batean zuela bizilekua, txakurren artean jan eta txortan jendearen aurrean egiten zuela, Alejandro Magno bera ere lotsarazi zuela, egunez kandela bat piztuta

Bittor Madina



gizatiar bat bilatuz ibili zala. Baina badaude beste asko, ahaztuta, utzita eta esan gabe gelditu direnak.

'Antistenes' Ziniko Eskolaren sortzailea izan zen. **Atenaseko 'Zinosarges' (txakurra nahi du esan) izeneko plazan** Akademia zabaldu zuen bere irakatsiak erakusteko. Diogenes, filosofo horren ikasle kuttuna eta gero zinikoen maixu ezagunena bihurtu zen.

Atenastarren arau sozial eta printzipio moral askoren kritikatzaille zorrotza zen Diogenes. Naturarekin adostasunean biziz (ez zikinkeriarekin), ondasun materialei uko eginaz, norberaren gorputza sakonki ezagutu eta beharrak kontrolatuz erabateko pobretasunean jardun zituen bere urteak. Etika zinikoa azken muturreraino eraman zuen. Aszeta zen, baina aszeta filosofoa. **Gizartearen eta norberaren "zikinkeri sozial eta moralak" agerian jarritz, garbitzeko beharra aldarrikatzen zuen.**

Hona hemen modu xinplean eta

motzean, bere pentsamendu batzuk:

-Epaileek lapurtxo bat zeramaten preso balore gutxiko taza ohostu zuelako. Diogenesek ikusi eta: **"Hara! lapur haundienek txikiena daramate preso"**.

-Kritikatzen zioten fama txarreko pertsonekin eta leku lizunetan zebilelako: **"Eguzkia bera ere kloaketan sartzen da, eta ez da zikintzen"**.

-Jainkoei otoitzean erregutzen zieten: **"Eskakizun onak baino, on-itxurakoak direnak erregutzen diezue"**.

-Siracusako Dionisio Tiranoak nola erabiltzen zituen lagunak galdetu zioten: **"Irin (urun) zakuak bezalaxe; beterik daudenean zintzilikatu eta hustu ondoren bota egiten ditu"**.

-Ea urrea zergatik zen horia galdetu zion fisiko batek: **"Zelatari eta begiluze ugari ditu; eta guztiz izututa eta ikararuta horitu egiten delako"**.

-Manes izeneko esklaboa zuen. Ihes egin zion eta lagunek bere bila joan eta zigortzeko gomendatzen zioten: **"Zer diren gauzak, Manes orain lasai ederrean bizi da Diogenes gabe; eta Diogenes ere ederki asko moldatuko da Manes gabe"**.

Zinismoak zortzi mende iraun zuen.

- Arazerixan -

> AURREKONTUEKIN ARAZERIXAN

Aurrekontuetan parte-hartzeko prozesua bukatu genuen Ludoteka eta Gaztelekura udal ordezkariak egin zuten bisitan. Gauzatuko diren gure proposamenak zeintzuk diren jakiteko, eta gauzatu ezin direnen arrazoiak ere entzuteko aukera izan genuen. Milesker gazteoi gure iritzia emateko aukera ematearren, baita aurrerantzean ere!

> ASTE-SANTUTAKO EKINTZA BEREZIAK

Aste-Santutan Ludotekak eta Gaztelekuak antolatuta izan ditugun ekintzak oso arrakastatsuak izan dira.

Alde batetik, ludotekako hezitzaileak herriko plazan egon dira hiru orduz eta bertara gerturatu diren 2-9 urte bitarteko haurrekin jolasten aritu dira. Egunero ekintza desberdinak egin dituzte: eskulanak, antzinako jolasak, mozerro desfilea, sukaldaritza... Horretarako material ez egituratuak erabili dira, modu honetan, haurren sormena, irudimena, sentimenduak eta abar islatu, eta haur bakoitzaren baitan dagoen sortzaile sena ateratzeko aukera eskaini nahi izan da.

Bestetik, Gaztelekuko kubokoak naturarekin harremana duten jarduerak eraman dituzte aurrera: ortuzabalera bisita, natur eskolakoekin ibilbidea ... Gaztelekuko topalekukoek aldiz, kirol txapelketak antolatu dituzte; badminton eta futbol txapelketak adibidez, eta zumaiara irteera egin dute. Ekintza hauen bitartez, ama lurreekiko errespetua landu dute eta naturak gizakiari eskaintzen digunaz ikasteko aukera izan dute besteak beste.

> Arte udalekuak:

Aurten seigarren aldiz Arte udalekuak antolatuko ditu Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturaz, margogintzan eta abar aritzeko aukera izango dute.

NOIZ: Uztailaren 3tik 28ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00, **ADINA:** LH3tik hasita DBH3 arte, biak barne. **TOKIA:** Bidebarrietako eskulanean gelan. **MATRIKULA:** Lehenengo haurra 70€, bigarrena 60€, hirugarrena 50€, laugarrenetik aurrera ez da ordainduko. **KOPURUA:** Plaza mugatuak, gehienez 15 gazte. **IZENA EMATEKO EPEA:** Maiatzaren 8tik 26ra, biak barne. **IZENA EMATEKO MODUA:** Gaztelekuan eman beharko da izena. Onartutakoei abisatuko zaie dirua non sartu behar duten jakinarazteko.



MAIATZEAN...

PLAZAN: [6] Goizean zehar, bigarren eskuko azoka. **TOPALEKUAN: [20]** Gazte Konkis 2017, aurkezpena (18:30). **GAZTELEKUAN: [13]** Udalekutako begiraleen formazio saioa (9:00-18:00). **[19]** Kontzertua: Josu Zubia eta Aitor Regueiro: 22:30, sarrera doan. **SAN ANTON PLAZATXOAN [6]** Ludoteka ibiltaria (10:30-13:30).



ALOÑA MENDIKO PILOTA SAILAK 50 URTE BETETZEN DITU AURTEN

Dokumental batean jasoko du 50 urteko historia

» 50 urte hauetako pilotari eta direktibako kide guztiak bildu nahi dituzte dokumentalerako irudiak grabatzeko.

» **Maiatzaren 20an** batuko dira plazako pilotalekuan (18:00)

URTEURRENEKO EKITALDIAK

Martxoan hasi zen urteurrena ospatzen Aloña Mendiko pilota saila, Abel Barriolaren agurreko partidurekin, eta hil honetan izango dute segida ospakizunek, maiatzaren 29tik ekainaren 3ra egingo den **Pilota Astearekin** (ikus egitaraua).

Bestalde, gogoratu, 50 urteurrenerako bereziki diseinatutako kamisetak atera dituztela emakumezko zein gizonezkoentzat (polo lepodunak 25€tan eta kamiseta lepo gabeak 20€tan). Oraingoz kiroldegian daude salgai (pilota sailekoen bulegoan).

75 PILOTARI

Gorabehera asko bizi izan ditu Aloña Mendiko pilota sailak 1967ko uztailan eratu zenetik gaur arte. Azpimarratzekoak Herriarteko txapelketan jokatutako lau finalak (1979, 1980, 1986 eta 1987), Deba Arroko txapelketan lortutako garaipen sorta luzea ahaztu barik.

Urte makalak ere bizi behar izan ditu, baina, kontua da, osasuntsu iritsi dela 50. urteurrenera. Gaur egun 75 fitxa (7 eta 25 urte arteko neska-mutilak) ditu klubak, eta oinarri hori sendotzea da orain erronka, jendea pilotalekura erakarri, eta gazteen artean pilotazale-tasuna indartuz.



1986ko Aloña Mendiko pilotariak, Zubikoa pilotalekua inauguratu zen egunean

Aloña Mendiko Pilota sailak 50 urte betetzen ditu aurten, eta mende erdiko historia jasoko duen ikus-entzunezkoa prestatzen ari dira. “25. urteurrenean liburua atera genuen, eta orain pentsatu dugu polita izango zela euskarri digitalean egitea bideoa” azaldu digu Josu Osa pilota saileko koordinatzaileak.

Kepa Aranburu ari da bideoa prestatzen, eta asmoa da azaroan egingo duten herri bazkarian aurkeztea. Pilota sailaren 50 urteko ibilbidean protagonista izan diren pilotari eta direktiboen testigantza, argazkiak eta erreportaiak jasoko ditu

bideoak. “Jende asko pasatu da klubetik 50 urte hauetan, bai pilotari moduan eta baita direktibo edo laguntzaile moduan, eta gure nahia da ahalik eta jende gehien agertzea dokumentalean” azaldu digu Esteban Ugartek, pilota saileko kideak. “Horregatik topaketa edo elkarretaratze bat egitea pentsatu dugu maiatzaren 20an (plazako frontoian, 18:00). Dokumentalerako irudi batzuk grabatuko dira bertan, eta, beraz, dei egiten diegu 50 urte hauetan modu batera edo bestera klubean ibili diren guztiei bertara hurbiltzera”.



URTEURRENEKO KAMISETAK

50. urteurrenerako diseinatutako kamisetak atera ditu pilota sailak, (lepodunak 25€tan, eta lepo gabeak 20€tan).

PILOTA ASTEA

Maiatzak 29 - Ekainak 3

ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN

(Maiatzak 29-Ekainak 3, kultur etxean)

- Euskal pilota herriz herri
- Oñatiko herria eta pilota. Argazki zaharren erakusketa

HITZALDIA

(Maiatzak 30, asteartea, kultur etxean)

Pilotarien prestakuntza: dietistak, pilotariak (Iribarria eta Rezusta), eta prestatzaile fisikoak.

PILOTA EGUNA

(Ekainak 3, larunbata, plazako pilotalekuan. Eguraldia txarra bada, Zubikoan)

- Takoak jartzen ikasteko tailerra
- Pilotagileak
- Pilota jokoak frontoian
- Nesken pilota partidua
- Iparraldeko joko-luze erakustaldia Foruen enparantzan



ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETA

Pilota Astearen barruan argazki zaharren erakusketa egongo da kultur etxean. Goiko argazkian Felix M^a Ugarte ageri da, Aloña Mendiko pilota saileko lehen presidentea izan zena, Deba Arroko txapelketako sariak ematen 1965ean. Urte hartan Arantzazun jokatu ziren finalak, euriagatik plazako frontoian birritan atzeratu ondoren



OÑATI-ZESTOA Herriartekoan

Apirilaren 26an egin zen Herriarteko Txapelketako zozketa. Aurtengoa 50. ekitaldia da eta 21 herrik parte hartuko dute. Oñatik ez du lehen kanporaketa (final 1/16) jokatuko, baina eza-gutzen du, jada, Zestoa izango dela bere aurkaria final 1/8-etan. Maiatzaren 21ean (Zestoa) eta 28an jokatuko da kanporaketa.

Herriko pilota txapelketa

Aloña Mendik eta Txosna Batzordeak antolatzen duten herriko pilota txapelketa ekainaren lehen hasiko da. Bienbitartean, izena emateko aukera dago Ona, Arrano eta Aloña tabernetan (10€ bikoteko).

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK


Ate Irekiak

Maiatzak 27 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuz
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592



ALBOK TXAPELDUN

Kalañatasaray jartu zuen mendean penaltietan. Kopan Kili-kolo nagusi

Hirugarrenean lortu du **Albokek**. Bere hirugarren finala zuen, eta ozta-ozta bada ere (2nako berdinketarekin amaitu zen partidua) penaltietan lortu zuen garaipena talde zuri-berdeak **Kalaña**ren aurka (iaz ere penaltietan galdu zuten titulua azken hauek). Jokin Leibarrek (Albok) jaso zuen partiduko jokalaririk onenaren saria.

Kontsolazioko finalean gol festa izan genuen, eta azkenean **Zalaparta** (iazko txapelduna) gailendu zen (5-4) **Sasquatch**-en aurka. Eta Kopako finalean **Kili-kolo** talde beteranoa nagusitu zen (4-0) **Shatoken Moura** gazteen aurka. Mikel Aramendia (Kili-Kolo) izan zen onena.

Orain atsedean hartuko du txapelketak udazkenara arte, baina tartean erabaki egin beharko dute Azkoagainen jarraitu ala Larrañako futbol zelaira aldatu, eta gaur egungo lehiaketa formatoari eutsi ala berria asmatu.

ESKER ONEZ

Herriko Futbol Txapelketako antolakuntza taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten ondorengo etxeei: ONA, XAGUXAR, LUIS, PAKO, PORTU, ARKUPE, OÑATI, BOGA, OLAKUA, ARTXUBI, ALDAPA, GAROA, ONGI, IZARRAITZ, ITURRI, AKER, ITURRITXO eta ARRANO tabernak, SUPER BM, URRUTXI, ASTORE, GERETA ARDOAK, EZPELETA, ALZU, MAPFRE, CAJA LABORAL, ARANBURU BITXITEGIA, CARAVANAS OÑATE, MENDIZABAL KIROL DENDA, LIZARRALDE, ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA eta OÑATIKO UDALA.



Albok



Kalañatasaray



Kili-kolo



JOKALARI BETERANOA

Ismael Malvadi (Kili-Kolo)



ATEZAIN ONENA

Andoni Egaña (Sasquatch)



GOLEGILE ONENA ('Bere' saria)

Unai Urribetxeberria (Zalaparta)



KIROLTASUN SARIA

Roberto Hernandez (Dollygans)



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezoa Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIERA EMPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostinal. asteburu
eta jai egunetan
baserriko agio
egonezko labore egitea



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



IGOERAREKIN AMESTEN JARRAITZEKO

Euskal Ligako igoera fasea irabazita, Espainiako fasea jokatuko du orain Aloña Mendik Burgosen. Bertako taldeaz gain, Madrilgo eta Nafarroako talde bana izango ditu aurkari. 1. Maila nazionalera igotzeko bere historian jokatuko duen hirugarren fasea izango da. Azkena, duela 15 urte jokatu zen Oñatin, eta Aloñak igoera lortu zuen.

Burgosenen jokatuko du 1. Maila Nazionalerako Igoera Fasea maiatzaren 13 eta 14an

Bi errekor jarri ditu Maite Maiorak Aloñako Igoeran



Emakumezkoak bikain aritu ziren Aloñako Igoeraren XIII. ekitaldian. Maite Maiora mendararrak marka berriak jarri zituen Aloñan (56:30) eta helmugan (2:20:39), Ana Conde gasteiztarren markak hautsiz. Oihana Azkorbebeitiak (2:28:40) eta Maria Zorrozak (2:30:36) ere ondu zituzten Conderen markak. Gizonezkoetan Imanol Goñi iruñearra (2:05:16) nagusi, bigarren urtez jarraian. Julen Martinez (2:06:41) eta Joxe Amunarrizek (2:07:22) osatu zuten podiuma. Oñatiarren artean, Axier Alonso (2:08:01), Xabier Lete (2:16:25) eta Iñaki Arriaran (2:22:50) izan ziren azkarrenak gizonezkoetan, eta Saioa Arkonada (2:46:40), Maite Zabaleta (2:55:11) eta Nagore Uribarri (juniorra) (2:55:32) osatu zuten podiuma. Antolakuntza bikaina, beste behin. Zorionak lanean aritu ziren 150 lagunei.

MENDI IRTEERA

Aramaio inguruak

Maiatzaren 21ean egingo da hil honetarako Aloña Mendik antolatu duen irteera. Oleta auzoan abiatuta, Santa Cruz koba ezkuturaino heldu, eta Izpiste (1082m) tontorrera igo ondoren Aramaion amaituko da. (15km eta 800m-ko desnibela, zailtasun barik). Hilaren 21a baino lehen eman behar da izena (10€) Aloña Mendi tabernan edo alona-mendi.mendi@gamil.com. Federatuta egon behar da. Irteera, 8etan Korreosen.

**JOSE DE AZPIAZU
MUSIKA ESKOLA**
J. Moia Kalea 26
20560 Oñati

Musikarekin hasi, hezi eta bizi...

- 2-3 urtetik aurrera hezkuntza musikala
- Kalitatezko musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...

Matrikula epea: maiatzaren 15etik - 31ra
* web orritik egiteko aukera egongo da.

idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com
www.jazpiazumusikaeskola.com

Tel.: 943 78 31 74



ARGI-2017

Oñatiko Argazki Festibala

Oñatiko ILUNPETAN Argazki Taldeak bi urtetik behin antolatzen duen argazkigintza jaialdia da ARGi festibala. Argazkigintza garaikidea zabaltzea du helburu, eta hirugarren ekitaldi honetan ere egitarau zabala eta aberatsa prestatu dute: erakusketak, tailerrak, filmak...

ERAKUSKETAK

ARGI-Arantzazu. PATRICIA BOFILL

Arantzazu Gaur Fundazioarekin elkarlanean antolatutako erakusketa. Estatu mailako argazkilarien artean egindako deialdira aurkeztutako 182 proposamenen artean aukeratua izan den Patricia Bofill kataluniarraren 'Más allá de la forma' lana dago ikusgai Gandiaga Topagunean. APIRILAK 28-MAIATZAK 28

ELI GARMENDIA + EKAITZ ZILARMENDI

Argazkilarari euskaldunen lana ezagutzera ematea da ARGi Festibalaren helburuetako bat, eta, ildo horretan, Eli Garmendia tolosarraren 'El bosque dormido' eta Ekaitz Zilarmendi atxabaltarraren 'Sistemak' lanak egongo dira ikusgai kultur etxean. APIRILAK 30-MAIATZAK 14

BERNAT ALBERDI. 'Oñatiarrak'

Ilunpetan taldeko Bernat Alberdiren erakusketa. Oñatin bizi diren askotariko kulturetako pertsonak islatzen ditu, kultur-artekotasunari buruzko hausnarketa eraginez. Antixeneko parkean eta gaztetxean. MAIATZAK 1-14



ISPILUAK

Sancti Spiritus unibertsitatean eta herriko kaleetan Oñatiko antxiñako argazkiak ikusgai, herria nola aldatu den erakusteko. Maiatzaren 6an (11:00) bisita gidatua egongo da Jerardo Elortzarekin. MAIATZAK 2-14



ARGIZAIOLA

Euskal Argazkilarien Federazioak urtero antolatzen duen Argizaiola lehiaketak finalista izan diren argazkiak daude ikusgai TXANDA elkarteko dendetan. APIRILAK 29-MAIATZAK 14

EKINTZAK

PHOTOBOOK CLUB

Donostialdea ohiko elkargune duen argazki-liburuzaleen taldea da, eta maiatzaren 13an Arantzazuko Gandiaga Topagunean batuko dira.

HYSTERION 3.0

Nagore Legarreta hernaniarraren lana da Hysterion. Aurreko edizioan primizian izan genuen ikusgai Oñatin. Argazki erakusketa zena, liburu bihurtu zuen, eta oso formatu berezian aurkeztuko du. Argazkiak proiektatzeaz gain, poesia eta bestelako testuen irakurketa, dantza eta musika uztartzen dituen ikus-entzunezko berezia eskainiko du Antixena Gaztetxean. MAIATZAK 14 (18:30)

TAILERRA

LIGHTPAINTING

Argiarekin margotzea da *lightpainting*.

Argazkiaren oinarriko kontzeptua eta jolasa uztartzen dituen teknika. Gazte zein nagusiek tarte batean ondo pasatzeko aukera ematen duen aitzakia. Gaztelekuko kuboan izango da (22:30). Plaza mugatuak. Eman izena: ilunpetan@gmail.com. MAIATZAK 12.



PANPINEN I. PIJAMA-FESTA

Haur liburutegian maiatzaren 18an

Haurren irakurzaletasuna sustatzea helburu duen ekimen originala egingo da udal liburutegian. Etxeko txikiek (2-6 urte arteko umeek) beren gustuko panpina eramango dute liburutegira, hauek gaua bertan pasa dezaten. Gauean festa handia ospatuko da liburutegian: liburuak irakurriko dituzte, abenturak kontatu, lagun berriak ezagutu, palomita jan... eta azkenean goxo-goxo lo egingo dute bata bestearen ondoan.

Pensylvaniako (AEB) liburutegi batean sortu zen ekimena 2007an, eta umeengan duen eragin positiboa ikusita, mundu osoan zehar zabalduz joan da. Ume gehienek, beraien panpinak irakurtzen ikusita, liburu horiek irakurtzeko eta liburutegira hurbiltzeko arreta eta gogoia adierazten dute.



Ekimen honetan parte hartu nahi duten familiek maiatzaren 18an (16:30-19:30) joan beharko dute Haur liburutegira panpinarekin, eta hurrengo egunean (maiatzak 19) panpinaren bila joango dira. Panpin bakoitzak gauean aukeratu duen liburua eramango dute etxera bueltan. Gero, maiatzaren 22tik aurrera, berriro gerturatzeko eskatuko zaie familiei, gaueko pijama-festan panpinei ateratako argazkien mural zoragarria ikustera. Horietako argazki batzuk eramango dituzte umeek etxera, oroigarri gisa.

IPUIN KONTAKETA SAIOA / Maiatzak 25

(6-9 URTEKO NESKA-MUTIKOENTZAT)

Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan, ipuin kontaketa saioa egongo da Haur liburutegian (18:00) hileko azken ostegunean. Oraingo honetan Lupe Lekuona hondarribiarra etorriko da eta 'Mundu zabaleko ipuinak' saioa eskainiko du 6-9 urteko haurrentzat. Ipuinen bidez Errusia, Txina, Afrika eta munduko beste hainbat herrialde eta bertako ohiturak ezagutzera joango gara autobus hegalari batean.



Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

ETXiAN
Oñatiko inbiliaria berria

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

Donostian etxea erosteko ere aukera onenaren informazioa eta laguntza

Etxian



Pinotxoren abenturak musikatuta

'PINOTXO-HARIEKIN LOTU GABE' MUSIKALA TAULARATUKO DU GANBARA TXIKIK

Pinotxoren istorioan oinarritutako musikala taularatuko du Ganbara Txikik ekainaren 16an eta 17an (Korpus jaietan). Orain dela bi urteko 'Altxorraren uhartea' arrakastatsuen ondoren, Carlo Collodi-ren 'Pinotxoren abenturak' ipuin klasikoa musikatu du oraingoan Aitor Biainek zuzentzen duen taldeak. Ikuskizun handia izango da, zentzu guztietan, dekoratuetan, partaide kopuruan, iraupenean... Bi ordu eta erdiko musikala izango da, eta Ganbara Txikiko 30 aktore-ableslari ariko dira oholtza gainean (Ganbara Abesbatza eta Irazan Antzerki Guneko kide batzuekin batera). Beste 25 lagunek dihardute produkzio lanetan (dekoratuak, atrezzoak...).

HIRU EMANALDITARAKO SARRERAK SALGAI

Pinotxoren abenturak euskaraz eta zuzenean taularatzen den aurreneko aldia izango da. Hiru emanaldi egongo dira: ekainaren 16an (ostirala) 18:30etan, eta ekainaren 17an (larunbata) 11:30 eta 18:30etan. Zubikoako pilotalekuan izango dira, eta saio bakoitzeko aforoa mugatua (500 pertsona) izango da. Beraz, sarrerak lehenbailehen erostea komeni da. Gainera, ekainaren 1etik aurrera garestiago (15€) salduko dira



Musikaleko kantak grabatu egin dituzte Ganbara Txikikoek, gero CDan eskaintzeko

Ekainaren 16an eta 17an izango dira emanaldiak, eta sarrerak salgai daude jada Txokolateixan eta www.ganbara.sacatuentrada.es atarian 12 eurotan. Ekainetik aurrera 15 eurotan.

Tours-eko nazioarteko lehiaketara abiatu aurretik Oñatin abestuko du Ganbara Abesbatzak

» MAIATZAK 14, PARROKIAN, 19:00

Maiatzaren 26tik 28ra Tourseko (Frantzia) Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartuko du Aitor Biainek zuzentzen duen Ganbara Abesbatzak, Estatu Batuak, Filipinak, Frantzia, Ukraina eta Italiako beste sei talderekin batera. Goi mailako abesbatzak izango dituzte lehiakide, baina ilusio handiz eta gogotsu joango dira oñatiarrak. "Egitarau potentea eta dotorea daramagu, eta disfrutatzeko asmoz goaz, ahalik eta lan txukunena egitera, eta sariren bat lortzen badugu, hobeto" adierazi digute. Inoiz baino hobeto omen dago abesbatza eta, zorionez, Tours-era abiatu aurretik Oñatin bertan entzuteko aukera izango dugu, maiatzaren 14an Mikel Deunaren parrokiaren eskainiko duten saioan. Bazkideentzat doahinik izango da; gainerakoentzat 8€

COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Arma Kalea, 9 - 20560 Oñati

☎ 942 089 806 ✉ oinati@coinbroker.eus
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

'Ezinen koblakari' bere bigarren diskoa aurkeztuko du Josu Zubiak



» MAIATZAK 19, GAZTELEKUAN, 22:30

Josu Zubia oñatiar bakarlariaren disko berria entzuteko aukera izango dugu maiatzaren 19an. Hamaika abesti biltzen ditu lan berriak, eta taldean egindakoa izan da. Bakarleri formatotik pittin bat urrunduz, bateria (Josu Murua), akordeoia (Izer Biain), pianoa (Miren Fernandez) eta baxua (Iñigo Ugarte) ere sartu ditu Zubiak, eta letrak moldatzeko ere idazle eta bertsolari ezberdinen laguntza izan du (Egoitz Aizpuru, Itziar Ugarte, Amaia Aranzeta, Maider Arregi, Gerardo Markuleta, Andoni Salamero, Nerea Gil, Andoni Goitia eta Xabi Pascual, besteak beste). Naroa Zumaldek eta Ganbara Txikikoek ere parte hartu dute.

Gustora dago Zubia emaitzarekin. "Gai aldetik sakona eta aberatsa da, eta musikalki ere landua.



Azala eta barruko ilustrazioak Mirari Sagarazurenak dira. Kontzertu egunean (eta ondoren Izarraitz tabernan) eskuratu ahal izango dugu diskoa 10€-tan. Aurkezpen kontzertua dohainik izango da, eta Aitor Regueiro bakarleri oñatiarrak ere abestuko du.

AGENDA

05

MAIATZA



MUSIKA

> MAIATZAK 12 / 18:30

DEBAGOIENENKO MUSIKA
ESKOLEN KONTZERTUA

Oñatiko musika eskolako ikasleekin batera, Bergara, Arrasate, Soraluze, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak ariko dira Oñatin. Santa Ana aretoan.

> MAIATZAK 14 / 20:00

DEDO

Kanta-idazle eta multi-instrumentista italiarra da Dedo, eta 'Cuore Elettroacustico' izeneko laugarren albumarekin dator gura. Arrano tabernan



> MAIATZAK 26 / 21:30

PUNK-ROCK JAIALDIA
ERREKALDEKO JAIXETAN

Peter and The Test Tube Babies (UK), *Rat-Zinger* (Bilbo), *Discipulos de Dionisos* (Donostia), *John Denver and The Coconuts* (Legazpi) taldeen kontzertua. Dohainik. Errekalden.



JAIALDIAK

> MAIATZAK 20

URGAIN EGUNA



11:30 Jaiari hasiera Urgaintxo eta *Senzala* batukadak lagun-duta. Ondoren herriko kaleetan jolastuko dira bazkal ordura arte; 14:30 Bazkaria, Zuazola institutoko plazan, DJ-ak giro-tuta; 16:00 DBHko ikasleen eskutik antzerkia; 16:30 Puzgarriak; 18:30 Kirol festa eta dantzaldia.

HITZALDIAK

> MAIATZAK 16 / 17:30

UDAL GIZARTE ZERBITZUAK

Udalak gizarte arloan eskaintzen dituen zerbitzuen berri emango du. Pake Lekun.

ANTZERKIA

> EKAINAK 2 / 22:30

ANTZERKI INPROBISATUA

Irazan Antzerki Gu-
neak 'SUPITUKI' ant-
zerki inprobisatu emanaldia eskainiko du Kilometroak-2017 kultur egitarauaren baitan. Gaztelekuan.



ARTXIPIELAGOA IKUSKIZUNA

Kantua, bertsoa musika eta irudia

> MAIATZAK 21

Parrokian, 19:00

Kilometroak-2017 lantaldeak antolatuta, labetik irten berri den ikuskizun bereziaz gozatzeko aukera izango dugu. Apirilaren 28an estreinatu zen Iruñean, eta Oñatiko izango da hirugarren emanaldia. Diziplina ezberdinetako sei sortzaile batuko dira oholtza gainean: Ainhoa Garmendia sopranoa, Andoni Egaña bertsolaria, Pello Ramirez txelo eta eskusoinu jotzailea, German Ormazabal piano jotzailea, Garikotz Mendizabal txistularia, eta Belén Ibarrola artista. Andoni Egañak gidatuko du saioa, gogoetak eginez kantutik kantura. Musikari dagokionez, euskal abesti klasikoak (J.M. Iparragirre, T. Garbizu, J. Guridi...) eta gaurkoak (Ken Zazpi, Itoiz, Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi...) entzuteko aukera egongo da, irudi eta bideoak proiektatzen diren bitartean. Ikusleek ere parte hartuko dute kantuan eginez. Sarrerak (12€) Txokolateixan eta ikastolan daude salgai.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



AUZOETAKO JAIK

> SAN MIGEL TXIKI JAIXAK

MAIATZAK 5, 6 eta 7

Egitaraua: www.facebook.com/SanMielTxikiJaixak

> KASABLANKAKO JAIXAK

MAIATZAK 12, 13 eta 14

Egitaraua: www.facebook.com/kasablankakojaixak

> ERREKALDEKO JAIXAK

MAIATZAK 26, 27 eta 28

Egitaraua: www.facebook.com/errekaldekojaixak

AZOKA

> MAIATZAK 6 / 10:00

FLEA MARKET AZOKA
Bigarren eskuko gauzak (erro-pak, liburuak, musika, jostailuak, altzariak...) erosteko aukera goiz osoan zehar (10:00-14:00). Foruen plazan.

ELKARTASUN AFARIA

> MAIATZAK 5 / 20:30

AFARI SOLIDARIOA
Parrokiako misio taldeak antolatuta, Maliko (Afrika) elkartasun proiektuaren alde. Bidaurretan.

IBILALDI GIDATUA

> MAIATZAK 5 / 10:00

TXORI KANTUAK EZAGUTZEKO
Miekl Olano adituaren eskutik txori kantuak ezagutzeko irteera. Informazioa eta izen-ematea: 943782894. Arantzazuko parketxean.

BIZIKLETA IBILALDIA Gasteizko eraztun berdean




> MAIATZAK 27

Txirrinka, Oñatiko bizikletazaleen taldeak antolatuta, bizikleta ibilaldia egingo da Gasteizko hiria inguratzen duen Eraztun Berdeari bira emanaz. Salburuan hasi eta bertan amaituko da ibilaldia; 30 kilometro inguru, guztira. Bertara joateko izena eman daiteke

txirrinka@gmail.com helbidean, maiatzaren 21a baino lehen. Izena ematen dutenen bizikletak furgonetan eramango dituzte, eta furgonetaren alokairurako 5 euro ordaindu behar dira. Izena ematen ez dutenak ere joan ahal izango dira, baina beraien kontura. Egun osoko ibilaldia izango da, hainbat geldialdi eginez inguruko gauza interesgarriak ikusteko. Bazkaria bakoitzak bere kontura eraman beharko du.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Haur liburua
"Nemo kapitainaren azken..."



Liburua
"El método Bates para..."




Gazte literatura
"Elurraren formula"



Liburua
"Elaboración propia"



Komikia
"Ojos grises"



Komikia
"Gabriel Aresti biografikoa"

MERKATU TXIKIA

> **BOE(VPO) SALGAI UGARKALDEN** + garajea + trastelekua. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta bi terraza. 3. pisua. Bista ederrak. Bizitzera sartzeko moduan. Igoailua bai. Bakarrik 8 urte dauzka. Galdetu konpromiso barik. 687726229

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Maiatzak 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Maiatzak 4, 12, 13, 14, 22, 23 eta 31, eta ekainak 1.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Maiatzak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25, eta ekainak 2, 3 eta 4.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Maiatzak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28, eta ekainak 5 eta 6.

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.S.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./FAXA: 943 78 14 59 limabarsel@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Kale Zaharra (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko hileko denden artean aipatu gabe geratu ziren, besteak beste, Kale Zaharreko bi ontzi-denda, zerami-ka saltzen zutenak: Esteban eta Patxi Iñurritegi (*Largo*) anaiena; eta Teresa Zubiak janari-dendaren ondoan eduki zuena; biak inguru batean egon ziren, baina garai desberdinetan. Liburu-denda bat ere ahaztu zitzaigun: Madina kaleko Aketz; Anton Apaolaza eta Patxi Irizar arduratu ziren hartaz. Gainera, Xarmenta lentzeria eta Miren Barrena erropa-denda.

ARTISAUAK ETA BESTE

Zapatariak (oinetako-konpontzaileak): Bitoriano Kortabarria, Bonbardo, familiarekin; Agapito Kortabarria eta semea; Luis Lete eta beste.

Uztargina: Pedro Lizarralde.

Perratzailea: Zipriano Zufiria.

Errementariak: Eujenio Arregi (*Matxakito*); Bixente Santa Kruz eta semeak.

Iturginak: Nikomedes Iturrospe eta ondorengoak; Faustino Erostarbe eta semeak; Enrique Apaolaza; Juanito Arkauz; Joxe Antonio Maiztegi; eta Iñurritegi.

Arotzak: Leandro Ortiz de Zarate; Pedro Beitia (*Kastillo*) eta semeak; eta Bittorin Zelaia, Bixente Ugarterekin.

Banastaginak: Larrastegi; Txaiña; Frantzesiena; Jausorotarrak (*Nabarro*); Paiko; Erle; Txori; Klemente; Lukas Agirre; Martin Aranburu (*Petokin*); Lazkanotarrak, eta abar.

Ile-apaintzaileak:

• **Gizakumeenak:** Lorenzo Ugarte (*Irubietta*); aurrekoaren loka-lean Doroteo, Nikolas eta Igone Ugarte; Patxi Iñurritegi (*Largo*); Aurelio Igartua; eta Julian Olalde (*Sillero*).

• **Emakumeenak:** Maritxu eta Martina Ugarte ahizpak (*Olalde*); eta Alaitz Zuazubiskar (*Izar*).

Taxistak: Rufino Lizarralde; Liborio Lizarralde; Pako Rabanete, Maria Jesus Aberasturi eta hauen semea.

Botika: Kale Zaharraren hasieran antzinatik kokatutako farmazia. Azkeneko botikariak honako hauek izan dira: Pablo Zatarain; Andres Leturia; Jabier Barrenetxea; Ana Barrenetxea; eta Amaia Igartua.

Belar-dendak: Aurora Iñarra (*Goiztiri*); eta Amalur.



Hernani eta Astorkitza etxeak elkarren ondoan

LANTEGIAK ETA ENPRESAK

Txokolate-fabrikak: Gereka (*Bazterrikarena*); eta Onena (*Arri-llagarena*).

Aterkin-lantegiak: Zelaia, Enparantza eta Ezpeleta; Agustin Baltzategi; eta Kurtzekoa.

Pila-fabrika: Zelaia, Enparantza eta Galdos enpresaren hasierak, aurretik guardasol-lantegia zuten lokal berean.

Gasolindegia: *Perratzailliena* tabernaren (Ona) aurrean zegoen, Zipriano Zufiriak 1920ko hamarkadan jarrita; gerra ostean Migel Illarramendiri esleitu zitzaion bere ustiaketa.

Auto-konponketak: Azkune anaiak; eta Erle.

Bizikleta-tailerrak: Benito Aiastui; Roman Igartua; eta Luxio Errasti.

Motorrak: Yarza.

Karretilak: Madinazkoitia-Sansinenea.

Bakelita-lantegia: Romulo Azkue.

Torloju-lantegia: Perosterena eta Irizar, Kanpantxon.

Ulma-taillerra: urte batzuk Kurtzeko etxe azpian egin zituen.

Eraikuntza: Egaralur.

TABERNAK, KAFETEGIAK ETA PASTELERIAK

Klasikoagoak: Bujero; Txaketua; Pako; Luixena; Perratzailliena (Ona) Inesena (Aloña); Idaho (ondoren Ongi Etorri); Kastillona; Donosti; Elizaurre.

Orainagokoak: Iturri; Izarraitz; Aker; Xaguzar; Ongi; Harripe; eta Gorrotxategi (Ogi Berri).

Pasteleriak: Anakabetarrena aspaldi; eta Gorrotxategi (Ogi Berri).

HOTELAK ETA OSTATUAK

Fonda Comercio, gerora Hostal Izarra (Bujeron); Hotel Ona; Fonda San Miguel; eta Ongi Hotela.

ELKARTEAK

Txantxiku Txoko (herriko zaharrena, lehenengo Txaketua tabernaren gainean, eta gero Ona hotela egondako lekuan); Kale Zaharra (San Migel kooperatiba gainean lehenengo, eta ate bat aurrerago orain); Oinarri (Onena txokolate-fabrikaren lokalatan); Haitzalde (San Anton kalean); eta Añolea Elkartetxea (Kale Zahar barrenean).

IKASTETXEAK

Agustino laterandarren kolegio-seminarioa hamarkada askotan; ospitaleko nesken eskola (*La Milagrosa*), mutikoentzako eskolaurrea ere bazuena; herri-eskolako ikasgela batzuk 1928tik 1936ra, orain Idigoras altzari-denda dagoen lekuan; *San Migel* ikastola (kooperatiba gaineko pisuan hasieran; Lizaur kaleko etxepean ere bai; eta agustinoen kolegioko hirugarren pisuan geroago); bigarren mailako institutuaren eraikin berria (gero *Zuazola* izena jarriko zitzaiona) zabaldu zen 1970an, ordura arte ospitale egon zen orubean; eta orainago *Ikas3* akademia urte batzuetan.

BANKUAK

Jatorrizko izenekin: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa; Banco de Vizcaya eta ondorengoak; Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián; eta Caja Laboral Popular.

ZENBAIT ETXE ETA ERAIKIN INTERESGARRI

Kale Zahar eta alboetako herri-zati zabal eta luze honetan maki-na bat etxe eta eraikin jaso, eraitsi edota ordezkatu dira mende askotan zehar. Geratu zaizkigun horietako batzuk bakarrik nabarmenduko ditugu hemen. Egia esan, horiek ere aldaketa ugari izan dituzte, barrutik batik bat, baina antzinako egitura eta elementu aipagarriak mantendu dituzte kanpoko aldetik batez ere.

Inguruan diren, eta neurri batean, beheko auzo honen historia eta bilakaera sakon markatu duten bi eraikin-erakunde ez ditugu zerrenda honetan sartuko: San Migel parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea, alegia, aparteko atal berezia merezi baitute. Hain zuzen ere, parrokia aurrean aurkitzen diren bi etxe aipatuko ditugu lehendabizi: Hernani eta Astorkitza izenekoak.

Hernani

Familia ezagun bateko egoitza izan zen XVI.eko eraikin honek

bi kaletara ditu fatxadak, geroztik zabaldutako balkoi eta leiho handiekin. Bereizgarriak aipagarriena, agian, zera da: zilindro eran moldatutako espaloitik teilaturainoko ertz dotorea. Aurrealdean ezkerretara Ama Birjinaren behe erliebe margotu bat dauka. Unibertsitateko obrak amaitu gabe zeudelako, etxe honetan eman ziren lehen eskolak epe laburrean.

Astorkitza

Aurrekoari itsatsita dago. Leinu honetako kide batzuk XVIII.ean nabarmendu baziren ere, etxea askoz lehenagokoa dela dirudi, Erdi Aroko arrasto batzuk gordetzen baitira bertan. Parrokia aldera ematen duen fatxadan bi leiho gotiko txiki eta estilo bereko ate bat mantendu ditu; barruko aldean, orain banketxe bateko bulegoetan, tankera berdineko beste ate bat ikus daiteke.

Zaratekoa

Orain San Anton, Maiatzaren 1a eta Bakardadeko Amaren kaleen artean kokatzen den etxetzar hau abizenez aldatuz joan zen jauntxo-familia baten egoitza izan zen luzaroan, hau da, Bergantzo, Zarate, Moiuatarrena. Erdi Aroko hiru leiho gotiko gorde ditu eta San Antonena izan daitekeen behe erliebe bat, auzoan desagertutako ermitakoa beharbada. Azken ehun urtetan monasterioa, hainbat etxebizitza, ikastetxeak, dendak, aurrezki kutxa eta taberna bat, besteak beste, egon dira Zaratekoan.

Egañena

Zaratekoaren aurrean aurkitzen da Gaiñena bezala ezagunago den etxe hau San Anton kalearen hasieran, orain sarrera plaza txo aldetik baldin badauka ere. Bi ate gotiko mantentzen ditu, tamaina desberdinekoak. Handienak armari bat du giltzarrian gaztelu baten irudiarekin; txikienak, aldiz, gurutzea borobil baten barruan sartuta. Antzinako leiho txiki bat ere badauka fatxada horretan. Etxe hau zeharo birmoldatu zen 1960ko hamarkadan, pisu bat gehitu zitzaolarik.

Olakua

Makina bat izen eduki ditu eraikin honek: Olakua, Gomendio-rena, Mantarrain, Perratzailliena eta orain Ona, horrela deitzen delako behekaldean duen taberna. Orain kanpotik duen itxura XVIII.eko dela ematen du; hurrengo etxea ere, seguraski, eraikin horren zatia izango zen sasoi batean, aurretik nahiz atzetik biek balkoi eta leiho berdintsuak dituzte-eta. Arku goratuko ate batzuk geratu zaizkio, ostekaldeko handia berri samarra da baina.

Badira, noski, kale-arte honetan beste hainbat etxe eta gauza aipagarri: agustinoetako komentua eta eliza, hiru iturri monumental, armariak eta beste elementu interesgarri asko, hemen leku faltaz zehaztu ezin ditugunak.





ITTEN BAT

(* Itten: arrastua, pista)

Txiste kontari

Pistolia eroatera

Egun baten bazixoian errekadutara gure herrira bizi izatera etorri barri zan emakume bat. Bidian topo egin eben herriko beste emakume batekin, eta preguntau otsan:



- Nora zoaz, Juanita?
- Illaramendiñeraiño pistola bat eroatera.
- Ez da izango! Ene, ene, handiagoak entzun behar genituen!

Hori entzundakuan hor xoiak gure emakumia buruari helduta, marmaxika. Goratxuago, beste emakume batekin alkartu zan eta, esan otsan:

- Juanitarekin elkartu naiz eta pistola bat eroatera omen zihoan, dardarka utzi nau.
- Ene, ene ez hadi horregatik larrittu, emakumia, pistola berakatz-zopak egitteko ogixa don eta!
- Ene ba, zopakoa orduan!

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|-----------------------|------------------------------|
| 1. Latrontxia | A. Laiotza |
| 2. Ostondua | B. Ihintza |
| 3. Sargori | C. Argiunea, hodeiartea |
| 4. Illuntza (iruntza) | D. Egutera |
| 5. Galdia | E. Hodeiak jo aurrekoa |
| 6. Bero ustela | F. Putzuetako izotz-kristala |
| 7. Ostargixa | G. Sapa |
| 8. Añubia | H. Garra, lama, sua |
| 9. Ibargixa | I. Zeru-sabaia |
| 10. Ostartia | J. Goiztiria, egunsentia |

Euskeraz egogi

* Goazen Erreala

Reala animaitteko asmuagaz sortutako esaldi hau ezta zuzena; izan be, 'goazen' fan aditzaren agintterazko formia da, norabait fateko aginddua emun gura dogunian ebalu biharrekua, eta ez desio edo gogo bat agertu, edo animua emuteruzkuan ebaltekua.

Animau gura izan ezkeru, beste esaldi honeik ebalu biharko gittuke, kontuan izanda Reala beti dala gure erreferentia:

- Aurrera, mutillak! Aupa, neskak! Segi hola!
- Ez etsi, eutsi! Ekin! Emun egurra!
- Geure eskuetan xagok eta, eutsi horri!
- Geuria don eta, eutsi goiari!

- Gaurkuan bai, gaurkuan geu txapeldun!
- Hirekin gagozak, geure-geuria haiz eta!
- Etxagon zuelakorik. Gora txuri-urdiñak! Biba zuek!

Eta Reala ikustera fan bihar badogu, berriz, holakuak:

- Guazen Reala animaittera, gaurkuan danon premiñian egongo da eta!
- (Donostiara aillegautakuan) Guazen Alde Zaharrera, Realzale danak han ibilliko dittuk eta!

Eta partidua galdu baldin badau, berriz:

- Guazan etxera, hemen etxagon zer egiñik eta!

EZ KIKILDDU,
EZ LOTSATU

Okelia baiño, peskia gurago!

Eta zuek? Ño! Txuleta on bat daguen lekuan, **okelia** gurago! Ba, **okelia** dakozue: **txarradia** piparrakin, **okela** egosixa tomatiarekin, txuleta be bai, saihsakixak eta bertako billotsa. Eta **peskia** dakozue: legatza prejitu eta saltsan, bakaillaua Bizkaiko erara, txitxarrua eta antxoak. Eta ze **peska** da, ba, Zuazola aldi harrapotakua? Ez, gizona, Pasaiako portutik gaur goizian ekarrittakua! Esan bihar neben, ba, Albarritzagako presan ebiltzen **peskaarixena** ezin zala izan! **Peskatorena** izango zala pentsau dot nere artian, haren **peskiak** Getarixakuaren inbidixarik eztau izaten eta. Bai, etxatzu arrazoa falta, **peskia** jateko freskua izan bihar, edo bestela zale gogorra izan bihar! Hemengo erreketan oraingodiok badago **peska** pittin bat, baiña oraingodiok onena **peskaderixan** erosittakua.

Eta haragixa noiz? Boo, haragixa ikutu be ez! Hori beste egun baterako itziko dogu!



1951n lehenengo komunია egin euen mutikuak

Urtetxuk pasau dira harrezkero. Oraintxe maiatzian beteko dira hirugoeta sei. Zazpi urte inguruko hogeta hamalau mutikotxo agiri dira serixo asko lehenengo jaunhartzeia San Migel parrokixan egin ondoren. Danak dotore guran, kurtzia lepotik behera, lazua ezkerreko besuan, baiña artian mariñero-jantzi gutxi. Komunio-egunerako preparaitteko dotriña erakusten euen parrokixako hiru abade ezagun be hortxe dira, Oñatiko parroko jaunarekin batera. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue mutikuok:

Goixeneko illaran zutik: Bixente Olalde, Gaztelondokua (Garagartza); Rafael Ugarte, Kale Zaharrekua; [X.] Gabilondo, Santa Marinakua; Rufino Orueta, San Antue kalekua; Karlos Astigarraga, Aleitarrena; Jerardo Elortza, Kale Zaharrekua; Juan Mari Galfarsoro, Kale Zaharrekua; Joxe Mari Egaña, San Juan kalekua; Andres Baños, Lekunbarrikua; Juan Joxe Orueta, Santzakua (Olabarrieta); Jexus Mugartza, Atzeko kalekua; Silbestre Arakama, Kastillokua (Garibai); eta Fernando Lizarralde, Lekunbarrikua.

Erdiko illaran zutik: Jexus Txintxurreta, Kanpizelaikua (Goribar); Andres Kortabarria, Gogordokua (Uribarri); Agustin Errasti (Lezesarrikua); Martxel Altzelai, Kasablankakua (Goribar); Pedro Biain, Lekunbarrikua; X. X.; Joxe Ramon Elizondo, Foruen plazakua; Jabier Gorostidi, Altzibar-Eperretxe (Lezesari); eta Esteban Igartua, San Antue kalekua.

Beheko illaran jasarrirta: Karmelo Astigarraga, Tetuan auzokua (orain Ultzegin kalea); Migel Anjel Korkostegi, Patrue kalekua; Bixente Ezeolaza, Lekunbarrikua; Joxe Mari Larrañaga, Santa Lutziakua (Bereza); Migel Intza, Azkarragakua (Uribarri); Agustin Elortza, Markizabalgua (Zubillaga); Juanito Madinagoitia, Kortakua (Larraña) [?]; Pedro Irazabal, Irazabalgua (Larraña); Paulo Markuleta, Aramaixuena (Larraña); Pedro Murguzur, Errotaburukua (Zubillaga); Joxe Mari Beitia, San Antue kalekua; eta Joxe Mari Guridi, Lekunbarrikua.

Abade jaunak, berriz, zutik ezkerrian Migel Díez, eta eskuman Juan Mujika; Erdixan jasarrirta: Migel Etxabeguren, parrokoa, eta Leonardo Zabaleta.

J. E.

Fotografixa Rafael Ugartek eskuratu dosku. Argibidiak, aldiz, Rafaeleri ez ezik, Rufino Orueta, Felipe Murguzur eta Joxe Mari Larrañagari be zor dostegu. Milla esker danoiri!

Oharrak: Fan dan hilleko zenbakixan eskumako argazkixan aurrekaldian eskuak jasota dagueen ikasliaren izena, geure akats bategatik, etzan agertu papelian: Imanol Galdos da. Bestalde, Edurne Galdos eta Josu Osaren informaziñuari bittartez, ezkerreko fotografixako umetxo batzuk identifikau ahal izan dittugu: borobillaren erdixan Felix Elortza eta Gaizka Perosterena dagoz; eta korruko batzuk Jesus Iturrospe, Beatriz Etxeberria, Nagore Galdos, Maite Arregi, Arantzazu Iturbe, Kepa Zubiagirre, Juan Jesus Urzelai, Josu Osa, Iñaki Martinez de Albeniz eta Luis Guridi dira. Ia topaitten dittuzuen. Gelako andereñua Itziar Usandizaga zan. Eskerrik asko argibidiengatik!

 grupo
amuebladora
mondragonesa



 Sofa
leku

 Koltxoi
leku



centro hogar MUEBLES



ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

943 79 15 03

ARRASATE

ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE

 BANAK
Importa



**ERAKUSKETA ALDAKETA DELA ETA,
DESKONTUAK!!**